4.- Quedan exceptuadas de esta obligación las obras que se realicen en cumplimiento de los objetivos de esta ley.

5.- La aplicación de los fondos provenientes de lo establecido en el apartado 1 de este artículo se llevará a cabo por cada Administración en los bienes protegidos por esta ley, y preferentemente en los ubicados en el entorno de la obra pública. En todo caso, habrán de ser atendidos los bienes afectados directamente por la obra pública de que se trate.

6.- Los órganos encargados de realizar las inversiones previstas en el párrafo anterior podrán transferir a los Departamentos de Cultura de las mismas las cantidades correspondientes a dicho

hau Jabego-erroldean erasoko da, araudiz garatu daitezen neurrietan. Lege honetan ohartemandako laguntzak ematek aurrera bost urte igaro baino lehen, Administrazioa, haztaketakako, atzera-indarrez baliatzeko eskubidearen, edo jabego-kenketaren indarrez, diruzko edo bestelako laguntzak ematen jardun deneko kultur ondasunen jabe egingo balitz, erosketako prezioari laguntza horien kopurua hainbatekoa kenduko zaio, laguntza horiek ordainketarako diru-aurrerapentzat joz.

103. atala.— 1.- Zermugatutako ondasun higiezinakoen eta zerrendatutako babes segurtatuzko erabilera emateko, horien erosketarako dirubideak, mailegu ofiziala araupetzeko arauetan jarritako eran eta baldintzetan, mailegu hori eskuratzeko lehentasuna izateko beharrezko izan daitezen neurriak hartuko ditu Jaurlaritzak. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak, nor banakoekin eta herri-mailako zein norbanako-alorreko izaikiekin hitzarmenak eginez, maileguen abantailez gozatzeko baldintzak ezarri ahal izango ditu.

2.- Horiek emateko baldintzak araudiz finkatuko dira.

104 atala.— Zermugatutako eta zerrendatutako kultur ondasunen jabe-izendunek edo horiek dituztenek, maiatzaren 30.eko 3/1989 Legea osabideratuz onartutako erakidetzarako legeetan, kondaira-lurraldeetako foru arauetan eta dagokien udalerrien agintarauetan horretarako erabakitako zerga-hobariak izango dituzte.

105. atala.— 1.- Kultur ondasunen jabeek, Euskal Kultur Ondare-Etxeak perito-txostena egin ondoren, dituzten zigorrezko zorren ordainetan, ondasun horien jabetza Administrazioari ematea honekin hitzartu ahal izango dute.

2.- Kultur ondasunen jabetza, uzteen eta hirigintzako legeak egiteratzeari darizkion nahitaez bete beharreko beharkunen ordezkio gisa, Udalei emateko hitzarmena ere egin ahal izango da, beti ere, uzte hauek guztien onari ekartzen dizkieten onurak aseko direla bermatu beharko dela.

106. atala.— 1.- Euskal Herriko Autonomi Elkarteko eta horko kondaira-lurraldeetako Administrazioek, erabat edo zati baten euren ordaindu dituzten berrogeita hamar milioitik gorako herri-lanen aurrekontuetan, lege honetan babestutako ondasunei bere onean eusten, arte-sorkuntza suztatzen, balioa ematen eta horien zabalkunde egiten xahutzeko, aurrekontu horien ehuneko batenaren balioko diru-atala, gutxienez, gordeko dute.

2.- Aurreko idatzian esandako zenbatekoari itzuri egiteko ez da akurapena zatikatzerik izango.

3.- Herri-lana administrazio-baimenez egiteratzen bada, aurreko zatian araupetutako gutxieneko hainbatekoa lanaren aurrekontu osoari ezarriko zaio.

4.- Lege honetako helburuak betetzeko egin daitezen lanak betebeharrak horretatik kanpo geratzen dira.

5.- Atal honetako lehenengo zatian ezarritakotikako ondasunen ezarpena, Administrazio bakoitzak lege honetan babestutako ondasunetan egiteratuko du eta, bereziki, herri-lanaren inguruan kokatutakoetan. Nolanahi ere, herri-lanak zuzeneko eragina dueneko ondasunen ardura izan beharko da.

6.- Aurreko zatian ohartemandako diruezarketak egiteko ardura duten ihardutze-sailek, ehuneko bateko horri dagozkion diruak, bakoitzak bere Kultura Sailari eskuratu ahal izango dizkiete

1%, con el fin de que estas Administraciones se ocupen de llevar a cabo las actuaciones de conservación y enriquecimiento del patrimonio cultural vasco.

7.- La aplicación de los fondos correspondientes al Gobierno Vasco habrá de llevarse a cabo de acuerdo con los criterios que reglamentariamente se determinen por el Departamento de Cultura y Turismo del Gobierno Vasco.

8.- Durante el mes de enero de cada año el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales se intercambiarán la información necesaria para la correcta aplicación de estas reservas.

Artículo 107.- Las disposiciones que regulen las ayudas previstas en los artículos anteriores de este título V habrán de establecer las garantías suficientes para evitar la especulación con bienes que hayan sido adquiridos, conservados, restaurados, excavados, mejorados, con ayuda de los fondos públicos.

TÍTULO VI SANCIONES

Artículo 108.- 1.- Salvo que sean constitutivos de delito, los hechos que a continuación se mencionan constituyen infracciones administrativas, que serán sancionadas conforme a lo dispuesto en este título:

- a) Las actuaciones y omisiones de propietarios, poseedores y titulares de derechos reales sobre bienes culturales calificados y sobre los inventariados contrarios a lo dispuesto en los artículos 23, 24, 28, 30, 35.1, 37.1 y 3, 41, 42, 45.4 y 101.
- b) Las actuaciones llevadas a cabo con incumplimiento de lo previsto en los artículos 20.1, 29, 30, 37.2, 38, 45.1 y 5, 46, 47.2, 62.1 y 100.1.
- c) Las actuaciones que se realicen contraviniendo los artículos 36, 40, 47.3 y 48.

2.- En los casos en que el daño causado al patrimonio cultural vasco pueda ser valorado económicamente, la infracción será sancionada con multa del tanto al cuádruplo del valor del daño causado.

3.- En los demás casos procederán las siguientes sanciones:

- A) Multa de hasta 10.000.000 de pesetas en los supuestos previstos en el apartado 1.a)
- B) Multa de hasta 25.000.000 de pesetas en los supuestos previstos en el apartado 1.b).
- C) Multa de hasta 100.000.000 de pesetas en los supuestos previstos en el apartado 1.c).

4.- Las multas correspondientes a las infracciones de las obligaciones recogidas en los artículos 24.3, 36, 37.2, 37.3, 41, 42, 45.4, 47.3, 100.1 y 101 serán impuestas y ejecutadas por el Gobierno Vasco. En el caso del artículo 36, procederá siempre que el derribo haya sido ejecutado sin previa desafectación por el Departamento de Cultura y Turismo del Gobierno Vasco.

5.- Las multas correspondientes a las infracciones recogidas en los artículos 20.1, 23, 24.2, 28, 29, 30, 31, 35, 36, 37.1, 38, 40, 45.1 y 5, 47.2, 46, 48 y 62.1 serán impuestas y ejecutadas por las Diputaciones Forales. Respecto a la infracción del artículo 36, será competente para su sanción la Diputación Foral siempre que el derribo haya sido ejecutado sin su autorización previa o con incumplimiento de lo previsto en su apartado 7 «in fine».

eta, hori, euskal kultura ondareari bere onean eusteko eta hori aberasteko lanak aurrera eramateaz Administrazio hauek ardura daitezen.

7.- Eusko Jaurlaritzari dagozkion ondasunen ezarpena, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailak araudiz ezarri ditzan erizpideen arabera egin beharko da.

8.- Urtero urtarrilez, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek, gordetako diru hauek behar denez erabiltzeko beharrezko diren argipideak elkarri emango dizkiete.

107. artala.— V idazpuru honetako aurreko ataletan oharmandako laguntzak arautuzko manuetarr, herri-diruen laguntzaz erosi, zaindu, bere oneratu, hobetu, hondalan bidez agerian utzi diren ondasunekin jukutriaz jokatzearagozteko, behar hainbat berrmapide ezarri beharko dira.

VI. IDAZPURUA ZIGORRAK

108. artala.— 1.- Delitu direnak salbu, ondoren aipatzen diren gertakariak administrazio-hutsak dira, eta idazpuru honetan agindutakoaren arabera zigortuko:

- a) Zermugatutako kultur ondasunen eta zerrendatutakoeen jabeek, horiek dituztenek eta horiei buruzko gauzekiko eskubideen jabe-izendunek, 23, 24, 28, 30, 35.1 eta 3, 41, 42, 45.4 eta 101. ataletan agindutakoaren aurka egindako lanak eta egin gabe utzitakak.
- b) 20.1, 29, 30, 37.2, 38, 45.1 eta 5, 46, 47.2, 62.1 eta 100.1 ataletan oharmandakoa hautsiz egindako lanak.
- c) 36, 40, 47.3 eta 48. atalak hautsiz egindako lanak.

2.- Euskal kultur ondareari egindako kaltea diruz neurtu daitekeena izanez gero, hauspen hori egindako kaltearen lau biderrezko isunaz zigortuko da.

3.- Gainontzeko kasuetan honako zigor hauek jarriko dira:

- A) 1.a) zatian oharmandako kasuetan, 10.000.000 pezetarainoko isuna.
- B) 1.b) zatian oharmandako kasuetan, 25.000.000 pezetarainoko isuna.
- C) 1.c) zatian oharmandako kasuetan, 100.000.000 pezetarainoko isuna.

4.- 24.3, 36, 37.2, 37.3, 41, 42, 45.4, 47.3, 100.1 eta 101. ataletan esandako bete beharrak hausteagatik isunak Eusko Jaurlaritzak jarriko eta gauzatuko ditu. 36. atalari gagozkiola, errausketa Eusko Jaurlaritzako Kultur eta Turismo-Sailak zertakoa aurrez kendu gabe egin baldin bada, isuna jarri beharko da.

5.- 20.1, 23, 24.2, 28, 29, 30, 31, 35, 36, 37.1, 38, 40, 45.1 eta 5, 47.2, 46, 48 eta 62.1 ataletan esandako hauspenei dagozkien isunak Foru-Aldundiek jarriko eta gauzatuko dituzte. 36. ataleko arau-hausteari buruzkoan, Foru-Aldundiak izango du zigorra jartzeko gaitasuna, beti ere, errausketa horrek aurrez baimenik eman gabe edo atal horren 7. zatiko azkenean oharmandakoa bete gabe egin bada.

Artículo 109.- Las sanciones administrativas requerirán la tramitación de un expediente, con audiencia del interesado, para fijar los hechos que las determinen, y serán proporcionales a la gravedad de los mismos, a -las circunstancias personales del sancionado y al perjuicio causado o que pudiera haberse causado al patrimonio cultural del País Vasco.

Las multas que se impongan a distintos sujetos como consecuencia de una misma infracción tendrán carácter independiente entre sí.

Artículo 110.- Las infracciones administrativas contra lo dispuesto en esta ley prescribirán a los cinco años de haberse cometido, salvo las contenidas en el apartado 1.c) del artículo 108, que prescribirán a los diez años.

En todo lo no previsto en el presente título será de aplicación el capítulo II del título VI de la ley de Procedimiento Administrativo.

DISPOCICIONES ADICIONALES

Primera.- Todos aquellos bienes muebles e inmuebles sitos en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco que hubieran sido declarados de interés cultural con anterioridad a la entrada en vigor de esta ley pasarán a tener la consideración de bienes culturales calificados del pueblo vasco, y quedarán sometidos al mismo régimen jurídico de protección aplicable a éstos.

Se consideran, asimismo, bienes culturales del pueblo vasco, y quedan sometidos al régimen previsto en la presente ley para los bienes calificados, las cuevas, abrigos y lugares que contengan manifestaciones del arte rupestre.

Segunda.- El Gobierno Vasco procurará, mediante acuerdos y convenios, que los bienes integrantes del patrimonio cultural del pueblo vasco que se hallen fuera del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco sean reintegrados a ésta.

Tercera.- Los museos cuya titularidad sea compartida por algún territorio histórico a la entrada en vigor de esta ley quedarán integrados en el Sistema Nacional de Museos mediante los convenios correspondientes. Los museos que se constituyan en régimen de cotitularidad a partir de la entrada en vigor de esta ley quedarán integrados automáticamente en este sistema.

Cuarta.- La aceptación de donaciones, herencias o legados a favor de la Comunidad Autónoma del País Vasco, aunque se determine como beneficiario a algún otro órgano de la Administración autonómica, corresponderá al Departamento de Cultura y Turismo siempre que se trate de bienes integrantes del patrimonio cultural vasco, entendiéndose aceptada la herencia a beneficio de inventario.

Quinta.- Será de aplicación lo previsto en el inciso final del apartado 3 del artículo 47 a los bienes de interés arqueológico depositados en los museos sitos en la Comunidad Autónoma con anterioridad a la entrada en vigor de esta ley.

109. atala.— Administrazio-zigorak zehazteko izango diren gertakariak finkatzeko, doakionari entzunez, zehaztapidetza bideratu beharko da, eta horiek gertakarien astunaren, zigorra jartzen zaionaren zernolakoan eta Euskal Herriko kultur ondareari egindako edo egin zekiokkeen kaltearen heinekoak izango dira.

Hauspen bat beragatik, gizabanako ezberdinei jarri dakizkien isunek ez dute elkarrekin zer ikusirik izango.

110. atala.— Lege honetan agindutakoaren aurkako administrazio-hutsak, egitetik bost urtera indarririk gabe geratuko dira, 108. ataleko 1.c) zatian esaten direnak izan ezik, hauek 10 urtera geratuko bait dira indarririk gabe.

Idazpuru honetan oharteman gabeko guztitan, Administrazio-bideko legearen VI. idazpuru-ko II. atalburuan ohartemandakoa ezarriko da.

ERABAKI GEHIGARRIAK

Lehenengoa.— Euskal Herriko Autonomi Elkartearen lurralde-eremuan kokatuta dauden eta lege hau indarrean jarri baino lehen kulturarako baliagarri direlako aldarrikapena egin zitzairen ondasun higigarri zein higiezinako guztiak euskal herriaren zermugatutako kultur ondasun bilatutako dira, eta hauei ezarri beharreko babes-jaurpide beraren menpe geratuko.

Era berean, kobazuloak, aterpeak eta beren bairan haitzuloetako arte-agerkaiak izanezko tokiak zermugatutako ondasunentzat lege honetan ohartemandako jaurpidearen menpe geratzen dira.

Bigarren.— Eusko Jaurlaritza, hitzarmen eta ituneen bidez, Euskal kultur ondarearen osagarri izan eta Euskal Herriko Autonomi Elkarteko lurraldetik at dauden ondasunak berriro hona ekartzen saiatuko da.

Hirugarrena.— Lege hau indarrean jartzean kondaira-lurralderen bat jabekide duten erakustetxeak, dagozkien ituneen bidez, Nazio mailako Erakustetxe Erapidetzan sartuta geratuko dira. Lege hau indarrean jartzetik aurrera jabekide-jaurpidez eratu daitezen erakustetxeak, erapidetza horretan berez eta besterik gabe sartuta geratuko dira.

Laugarrena.— Euskal Herriko Autonomi Elkartearen onetan opariak, oinordekotzak edo hilburuko ernaitzak hartzea, nahiz eta onuraduntzat autonomi Administrazioku beste ihardutzesailen bat adierazi, horiek euskal kultur ondarearen osagarri direnean, Kultura eta Turismo-Sailari dagokio, oinordekotzaa zerrendaren onerako onartuko dela.

Boskarrena.— Lege hau indarrean jarri baino lehen Autonomi Elkartearen kokatutako erakustetxeetan utzitako arkeologi interesgarritasuneko ondasunei 47. atalaren 3. zatiko azken le-roaldian ohartemandakoa ezarriko zaie.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera.- En el plazo de un año a partir de la entrada en vigor de la presente ley, el Gobierno Vasco, a propuesta del Departamento de Cultura y Turismo, dictará los reglamentos de organización y funcionamiento de los Sistemas Nacionales de Bibliotecas, Archivos y Museos, así como el reglamento de organización y funcionamiento del Registro y del Inventario del Patrimonio Cultural del Pueblo Vasco. Asimismo, y en el plazo de un año, aprobará los decretos de creación de los centros previstos en los artículos 80, 88 y 95 de la presente ley.

Segunda.- La tramitación y efectos de los expedientes sobre declaración de bienes de interés cultural incoados con anterioridad a la entrada en vigor de la presente ley quedarán sometidos a lo dispuesto por ésta.

Tercera.- La protección prevista para los bienes inmuebles declarados de interés cultural con anterioridad a la entrada en vigor de la presente ley, a través de los instrumentos de ordenación urbana, deberá ser sometida a informe y aprobación del Departamento de Cultura y Turismo del Gobierno Vasco, salvo en aquellos casos en que dicho informe hubiera sido ya emitido por dicho Departamento. A estos efectos, el Departamento de Cultura y Turismo del Gobierno Vasco podrá requerir a los Ayuntamientos y Diputaciones Forales afectadas la presentación del documento urbanístico correspondiente. Revisados los planes por dicho Departamento, el órgano competente en cada caso dispondrá del plazo de un año para la adaptación de los mismos a los informes del Departamento de Cultura y Turismo del Gobierno Vasco.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

1.- Queda derogado el Decreto 379/1987, de 15 de diciembre, por el que se crea la junta Asesora del Libro/Liburuaren Aholku Batzordea; el Decreto 382/ 1987, de 15 de diciembre, por el que se crea la junta Asesora de Arte de Euskadi/Euskadiko Artearen Aholku Batzordea; el Decreto 384/1987, de 15 de diciembre, por el que se reestructura la junta Asesora del Patrimonio Monumental de Euskadi/Monumento Ondarearen Aholku Batzordea; el Decreto 385/1987, de 15 de diciembre, por el que se reestructura la Junta Asesora de Arqueología de Euskadi/Euskadiko Arkeologiaren Aholku Batzordea, y la Orden de 17 de diciembre de 1987, reguladora de la realización de actividades arqueológicas en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.- Asimismo, quedan derogadas cuantas disposiciones se opongan a lo establecido en la presente ley.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.- 1. El Gobierno Vasco aprobará, con la periodicidad que se establezca, directrices generales para la mejor protección y defensa del patrimonio cultural.

2. Se autoriza al Gobierno Vasco a dictar, además de las disposiciones reglamentarias expresamente previstas en la presente ley, las que sean precisas para su cumplimiento.

3. El Gobierno Vasco queda autorizado para proceder reglamentariamente a la actualización de la cuantía de las multas que se fijan en el artículo 108 de la presente ley.

Segunda.- La presente ley entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOPV.

ALDI BATERAKO ERABAKIAK

Lebena.— Lege hau indarrean jari ondorengo urcebeteren barruan, Eusko Jaurlaritzak Kultura eta Turismo-Sailaren saloz, Nazio Mailako Liburutegi, Gordetegi eta Erakustetxe-Erapidetzen antolakuntza eta ihardunbiderako araudiak egingo ditu, baita Euskal Herriko Kultur Ondarearen Zerrenda eta Eroldearen antolakuntza eta ihardunbiderako araudia ere. Era berean, eta urtebeteko epean, lege honetako 80 88, eta 95. ataletan oharmandako tegiak sortzeko dekretuak ere onartuko ditu.

Bigarren.— Lege hau indarrean jarri baino lehen hasiera emandako kultur interesgarritasuneko ondasun aldarrikatzeari buruzko zehazrapidetzen bideraketa eta ondorioak lege honetan agindutakoaren menpe geratuko dira.

Hirugarren.— Lege hau indarrean jarri baino lehen kultur interesgarritasuneko aldarrikatutako ondasun higiezinekoentzako oharmandako hirigintza-antolakuntzako egiterapideen bidezko babesa. Eusko jaurlaritzako Kultura eta Turismo-Sailaren txosten eta onarpenaren menpe jarri beharko da. txosten hori Sail horrek dagoeneko eman duenetan salbu. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo-Sailak, doakien Udal eta Foru-Aldundiei, dagokion hirigintza-agiria aurkezteko eska diezaieke. Sail horrek egitamuak ikuskatu ondoren, bakoitzean gaitasuna duen ihardutze-sailak urtebeteko epea izango du horiek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo-Sailaren txostenetara egokitze.

INDARGABETZEKO ERABAKIA

1.— Indargabetuta geratzen dira: Junta Asesora del Libro/Liburuaren Aholku Batzordea sortzeko abenduaren 15eko 379/1987 Dekretua; Junta Asesora de Arte de Euskadi/Euskadiko Artearen Aholku Batzordea sortzeko abenduaren 15eko 382/1987 Dekretua; Junta Asesora del Patrimonio Monumental de Euskadi/Euskadiko Monumentu Ondarearen Aholku Batzordea berregituratzeko abenduaren 15eko 384/ 1987 Dekretua; Junta Asesora de Arqueología de Euskadi/Euskadiko Arkeologiaren Aholku Batzordea berregituratzeko abenduaren 15eko 385/1987 Dekretua eta Euskal Herriko Autonomi Elkartean egiten diren arkeologi egintzak erregulatzeko 1987.eko abenduaren 17ko Agindua.

2.— Halaber, lege honetan agintzen denaren aurkaku izanezko manu guztiak indargabetuta geratzen dira.

AZKEN ERABAKIA

Lebenengoa.— 1. Ezar dadin aldizkotasunez, Eusko Jaurlaritzak onartuko ditu kultur ondarea hobeto babesteko eta aldezteko arteztarau nagusiak.

2.- Lege honetan berariz oharmandako araudizko manuez gainera, horiek bete erazteko beharrezko izan daitezzenak emateko baimena ematen zaio Eusko Jaurlaritzari.

3.- Lege honetako 108 atalean tinkatzen diren isunen kopurua araudiz eguneratzeko baime-na du Eusko Jaurlaritzak.

Bigarren. Lege hau EHAA-n argitaratzen den egunaren biharamonean jarriko da indarrean

Artxibo zerbitzuetako araudia eta dokumentazio ondarea
erregulatzeko arauak

Reglamento de los servicios de archivo y normas reguladoras
del patrimonio documental

DECRETO 232/2000, de 21 de noviembre, por el que se aprueban el Reglamento de los Servicios de Archivo y las normas reguladoras del Patrimonio Documental del País Vasco.

.....
.....

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 21 de noviembre de 2000.

El Lehendakari, JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Cultura, M.^a CARMEN GARMENDIA LASA.

7232/2000 DEKRETUA, azaroaren 21ekoa, Artxibo Zerbitzuetako Araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio Ondarea erregulatzeko arauak onartzen dituen.

.....
.....

Vitoria-Gasteizen, 2000ko azaroaren 21ean.

Lehendakaria, JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Kultura sailburua, M.^a CARMEN GARMENDIA LASA.

El Patrimonio Documental del Pueblo Vasco, regulado en la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, es una de las materializaciones de nuestra memoria colectiva, y los documentos, expedientes y fondos de archivo que lo componen son instrumentos idóneos para la interpretación de nuestra historia. Además de ello, los documentos, en sus soportes y formatos más variados, constituyen una realidad cotidiana para los ciudadanos, además del soporte imprescindible para la actividad diaria de nuestras instituciones.

La adecuada conservación material, realizada de manera organizada, y la difusión del contenido informativo de la documentación integrante en el presente o susceptible de integrar en el futuro dicho Patrimonio Documental, adquieren una relevancia trascendental que la mencionada Ley del Patrimonio Cultural Vasco resalta, haciendo necesaria la pormenorización de sus determinaciones por vía de este desarrollo reglamentario, así como de las disposiciones que puedan promulgarse en lo sucesivo.

La regulación que se propone pretende dar respuesta a los problemas de la gestión diaria de los Servicios de Archivo de la Comunidad Autónoma, y proporcionar cauces para la adecuada solución de una parte importante de los mismos a sus responsables. Para ello se aúnan las disposiciones tanto sobre problemas de gestión interna del Servicio como sobre la difusión y el acceso a la documentación por parte de los ciudadanos, creciente cada día.

Con este motivo, desarrollando la propia definición legal, se describen pormenorizadamente las diversas materializaciones del amplio concepto de Patrimonio Documental, incluyendo en el mismo la totalidad de los documentos de interés producidos o que se produzcan en el ámbito de la Comunidad Autónoma, para, a continuación, enfatizar el deber de su conservación, con la previsión de los criterios habituales de gestión y utilización del mismo (transferencia, valoración, eliminación, préstamo...), todo ello con un contenido normativo austero, pero suficiente para facilitar la homologación terminológica y conceptual necesarias.

Se articula un sistema normativo común a todos los Servicios de Archivo, con las excepciones legales de los archivos forales y los del Estado, encomendándoles la tarea común de preservar aquella parte del Patrimonio Documental que les corresponde, a través del llamamiento expreso a las fórmulas de colaboración existentes en nuestro Ordenamiento Jurídico, y contemplando un mínimo de funciones normalizadas en aras al cumplimiento del fin mismo de su conservación. Estas disposiciones de aplicación general a los Servicios de Archivo no buscan otro cometido que el de la ya referida normalización y homogeneización en la actuación organizada de depósito que les corresponde, con el consiguiente enriquecimiento propio de las indispensables relaciones mutuas entre los mismos.

El Sistema Nacional de Archivos de Euskadi, diseñado como la estructura cuya función es la coordinación y normalización de la gestión de los Servicios de Archivo de la Comunidad Autónoma, se concibe así como el medio idóneo para consolidar la homologación en la actuación conjunta de los servicios propios de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma, e, incluso, de los servicios dependientes de otras instituciones públicas y privadas, todo ello en aras de la protección de nuestro Patrimonio Documental y la difusión más adecuada de la información que en el mismo se contiene.

Por último, en el seno del Sistema Nacional de Archivos de Euskadi, y como el apoyo necesario al esquema establecido, se crean, como órganos colegiados consultivos, el "Consejo Vasco de Patrimonio Documental y Archivos" en calidad de órgano de participación, asesoramiento y consulta del Gobierno Vasco en materia de Archivos y Patrimonio Documental y la "Comisión de Valoración y Selección de Documentación" que, a diferencia del anterior, centra su atención en los

Euskal Herritarren dokumentazio-ondarea Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legean dago araututa. Ondare horren bitartez hezurmamitu da gure memoria kolektiboa, eta berori osatzen duten agiriak, espedienteak eta artxibo-fondoak tresna ezin egokiagoak dira gure historia interpretatzeko. Agiriak, gainera, dauden eusgarrian daudela, gauza arrunta dira herritarren eguneroko bizitzan; instituzioen eguneroko jardunean, berriz, ezinbesteko eusgarri.

Dokumentazio Ondarea osatzen duten dokumentuak edo gerora bilduko direnak behar bezala kontserbatzeak, modu antolatuan, berebiziko garrantzia du, baita agirietan jasotako informazioa zabaltzeak ere, eta horrela jasotzen da Euskal Kultura Ondarearen Legean. Ildo horretatik, nahitaezkoa da Legean xedatutakoa arau honen eta gerora emango direnen bitartez garatzea eta zehaztea.

Proposatzen den arau honek helburu bikoitza du: autonomia erkidegoko artxibo-zerbitzuek eguneroko kudeaketan dituzten arazoei irtenbidea ematea eta arduradunei arazo horietako asko konpontzeko bide egokiak eskaintzea. Horretarako, bildu egiten dira zerbitzuaren barne kudeaketako arazoak konpontzeko diren xedapenak eta informazioa herritarren artean zabaltzeko eta horien esku jartzeko direnak, eskaria gero eta handiagoa baita.

Hori dela eta, legezko definizioa garatzearren, Dokumentazio Ondarearen kontzeptu zabala zertan gauzatzen den deskribatuko da zehatz-mehatz. Horren barruan sartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoan sortu edo sortuko diren agiri interesgarri guztiak, eta bereziki azpimarratzen da horiek kontserbatu beharra, ondarea erabiltzeko eta kudeatzeko ohiko irizpideak ezarriz (transferentzia, balioespena, deuseztapena, mailegua...). Hori dena, arau doien bitartez egingo da (doiak baina nahikoak terminoen eta kontzeptuen beharrezko homologazioa errazteko).

Arau sistema bakarra ezarriko da artxibo-zerbitzu guztietarako -foru-erakundeen eta Estatuaren zerbitzuetarako izan ezik- eta dagokien dokumentu-ondarearen zatia gordetzeko eginkizuna ematen zaie. Horretarako, ordenamendu juridikoan dauden lankidetzabideak erabiltzeko deia egiteaz gain, gutxieneko funtzio normalizatuak aurreikusten dira, agiriak kontserbatzeko helburua bete ahal izateko. Artxibo-zerbitzuei, oro har, aplikatu beharreko xedapen hauek helburu bakarra dute: berezkoa duten gordailu-eginkizun antolatua normalizatzea eta homogeneizatzea; horrela, beren arteko nahitaezko harremanak aberastuz.

Euskadiko Artxibo Sistema Nazionala Euskal Autonomia Erkidegoko artxibo-zerbitzuak koordinatzeko eta normalizatzeko tresna izateko diseinatu da. Hortaz, baliabide egokiena da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Erakundezkoaren eta baita beste erakunde publiko zein pribatu berezko zerbitzuen jardura bateratua homologatzen laguntzeko, beti ere, helburu jakin batekin, gure dokumentazio-ondarea babestea eta bertan jasotako informazioa erarik egokienean zabaltzea.

Azkenik, ezarritako eskemaren euskarri, bi erakunde sortzen dira Euskadiko Artxibo Sistema Nazionalaren barruan: "Dokumentu Ondarearen eta Artxiboen Euskal Kontseilua" eta "Dokumentazioa Balioesteko eta Aukeratzeko Batzordea". Lehenengoa Eusko Jaurlaritzaren parte-hartze, aholku eta kontsulta organoa izango da artxibo eta dokumentu ondarearen alorrean. Bigarrena, berriz, lehenengoaz bestela, dokumentuen kudeaketari buruzko alderdi tek

aspectos técnicos relativos a la gestión de la documentación, interviniendo en los procesos de valoración, selección y expurgo y emitiendo criterios extensibles a los servicios de archivo dependientes de todas las instituciones del ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Cultura, oída la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 21 de noviembre de 2000.

DISPONGO:

CAPÍTULO I DEL PATRIMONIO DOCUMENTAL

Artículo 1.— El Patrimonio Documental Vasco.

1.- El Patrimonio Documental del Pueblo Vasco es una de las materializaciones de nuestra memoria colectiva, formada sobre la sedimentación de documentación relevante de procedencia y titularidad diversa a lo largo de los siglos.

2.- Según lo dispuesto en el art. 55.1 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, el Patrimonio Documental del Pueblo Vasco está compuesto por la documentación de interés producida o recibida por cualquier Administración, entidad o individuo que a lo largo de la historia haya desarrollado sus atribuciones, funciones o actividades en el País Vasco, independientemente de su titularidad y ubicación actual o futura.

3.- El Patrimonio Documental de Pueblo Vasco se regirá por lo dispuesto en el presente Decreto y, complementariamente al mismo, por el régimen de protección que, en su caso, recaiga sobre los Fondos de Archivo, Colecciones de Documentos o Documentos integrantes del mismo que sean calificados o inventariados con arreglo a lo previsto en la Ley de Patrimonio Cultural Vasco.

Artículo 2.— Los Fondos de Archivo.

1.- Con carácter general, a los efectos de su conservación y gestión, la documentación constitutiva del Patrimonio Documental del Pueblo Vasco se considerará integrada de manera natural en su correspondiente Fondo de Archivo, o, en su defecto, y por causas especiales, formando una colección de documentos.

2.- El Fondo de Archivo constituye el inexcusable elemento de referencia, desde el punto de vista archivístico, al objeto de la aplicación de las disposiciones contenidas en este Decreto y disposiciones concordantes con el mismo a salvo las expresas menciones en contrario que se contengan al respecto en la referida normativa.

3.- Conforme a lo previsto en el artículo 57 de la Ley del Patrimonio Cultural Vasco, se considera Fondo de Archivo a todo conjunto orgánico de documentos, reunido por cualquier Administración, entidad o individuo en el ejercicio de sus funciones o actividades, y conservado de manera organizada de forma que se garantice la difusión adecuada de su información

nikoez arduratuko da, eta balioespen, aukeraketa eta garbiketa prozesuetan parte hartzeaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko instituzio guztietako artxibo-zerbitzuei buruzko irizpi-deak emango ditu.

Ondorioz, Kultura Sailburuaren proposamenez, Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juri-dikoari entzun ostean, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2000ko azaroaren 21ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA DOKUMENTU ONDAREA

1. *artikulua*.— Euskal Dokumentu Ondarea.

1.- Euskal Dokumentu Ondareak hezuramaitzen du gure memoria kolektiboa. Oroitzapen horiek, hortaz, mendeetan zehar jatorri askotatik heldutako dokumentuak dituzte oinarri.

2.- Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 55.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, hauek osatzen dute Euskal Herritarren Dokumentu Ondarea: historian zehar, beren eskumenak, zereginak edo jarduerak Euskal Herrian gauzatu dituzten Administrazio, erakunde eta norbanakoek sortutako edo jasotako dokumentu interesgarriak, horien titularra dena dela eta dauden tokian daudela.

3.- Xedapen hauek eraenduko dute Euskal Herritarren Dokumentu Ondarea: Dekretu honek eta, osagarri gisa, Euskal Kultura Ondarearen Legeak xedatutakoaren arabera sailkatutako edo inbentariatutako artxibo-fondoak, dokumentu bildumak edo horiek osatzen dituzten dokumentuak babesteko araubideak.

2. *artikulua*.— Artxibo-fondoak.

1.- Oro har, Euskal Herritarren Dokumentazio Ondarea osatzen duten dokumentuak berez dagokien artxibo-fondoan sartuko dira, edo, horrelakorik egon ezik eta arrazoi bereziengatik, dokumentu-bilduma batean, beti ere, kontserbatzeko eta kudeatzeko helburuarekin.

2.- Artxiboetako jardueraren ikuspegitik, artxibo-fondoa da erreferentzia-elementu behinena Dekretu honetako xedapenak eta horiekin bat datozenak aplikatzeko orduan, arau horietan bera-riaz aipatzen diren salbuespenak salbuespen.

3.- Euskal Kultura Ondarearen Legearen 57. artikuluaaren arabera, artxibo-fondoak baldintza hauek bete behar ditu: dokumentu multzo organikoa izatea; edozein administrazio, erakunde edo norbanakok bere funtzio edo zereginak betetzen diharduela bildua izatea eta era an-tolatuan kontserbatuta egotea, bertan jasotako informazioa era egokian hedatuko dela bermatzeko.

Artículo 3.— Documentos integrantes del Patrimonio Documental.

1.- Forman parte del Patrimonio Documental del Pueblo Vasco, los documentos de interés de cualquier época producidos, reunidos, y conservados en el ejercicio de sus funciones o actividades por:

- a) La Administración General y la Administración Institucional de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- b) El Parlamento Vasco y las Juntas Generales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.
- c) Las Administraciones Generales y las Administraciones Institucionales de los Territorios Históricos de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.
- d) Las entidades locales comprendiendo tanto a los Municipios, como a las entidades de ámbito territorial inferior al municipal y las entidades supramunicipales de carácter local (entre las que se incluyen las Cuadrillas de Alava) y cualquier otra entidad administrativa de nivel comarcal que pueda crearse.

2.- Forman parte también del Patrimonio Documental del Pueblo Vasco, los documentos de interés de cualquier época producidos, reunidos, y conservados en el ejercicio de sus funciones o actividades por:

- a) La Administración del Estado y entidades u organismos dependientes de la misma, que hayan actuado o actúen en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, todo ello sin perjuicio de la legislación del Estado que le resulte aplicable.
- b) Los órganos de la Unión Europea radicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco, sin perjuicio de la normativa comunitaria que les sea aplicable.
- c) Las Universidades y centros educativos y formativos radicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- d) Los órganos de la Administración de Justicia con sede en la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- e) Las Notarías y Registros Públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- f) Las corporaciones de derecho público con domicilio en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

3.- Asimismo, forman parte del Patrimonio Documental del Pueblo Vasco, los documentos de interés de una antigüedad de cincuenta o mas años, producidos, reunidos, y conservados en el ejercicio de sus funciones o actividades por:

- a) Las entidades eclesiásticas y las asociaciones y órganos de las diferentes confesiones religiosas radicadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- b) Las organizaciones políticas, sindicales y empresariales con domicilio en la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- c) Las entidades, las fundaciones y las asociaciones culturales y educativas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- d) Familias y personalidades relevantes del País Vasco a lo largo de la historia.
- e) Cualesquiera otras entidades particulares o personas físicas.

3. *artikulua*.— Dokumentu Ondarea osatzen duten dokumentuak.

1.- Jarraian aipatzen diren erakundeek beren funtzio edo zereginetan dihardutela sortu, bildu edo kontserbatutako dokumentu interesgarriek osatzen dute Euskal Herritarren Dokumentu Ondarea, dokumentuok diren garaikoak direla. Hona hemen erakundeok:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta Erakundezkoa.
- b) Eusko Legebiltzarra eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Batzar Nagusiak.
- c) Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa lurralde historikoetako administrazio orokorrak eta erakundezkoak.
- d) Toki erakundeak: udalak; udalek baino lurralde txikiagoa hartzen duten entitateak; toki-izaera duten udalaz gaindiko entitateak (Arabako koadrilak barne) eta, eskualde-mailan sortzen diren bestelako administrazio-entitateak.

2.- Jarraian aipatzen diren erakundeek beren funtzio edo zereginetan dihardutela sortu, bildu edo kontserbatutako dokumentu interesgarriek ere osatzen dute Euskal Herritarren Dokumentu Ondarea, dokumentuok diren garaikoak direla. Hona hemen erakundeok:

- a) Estatuko Administrazioa eta horren menpeko entitate edo erakundeak, beti ere, Euskal Autonomia Erkidegoan jardun edo jarduten badute eta aplikagarri zaien Estatuko legeriaren aurka jo gabe.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden Europako Batasuneko organoak, beti ere, aplikagarri zaien Batasuneko legeriaren aurka jo gabe.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden unibertsitateak eta heziketa eta prestakuntza zentroak.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden Justizia Administrazioko organoak.
- e) Euskal Autonomia Erkidegoko notariotza eta erregistro publikoak.
- f) Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten zuzenbide publikoko korporazioak.

3.- Jarraian aipatzen direnek beren funtzio edo zereginetan dihardutela sortu, bildu edo kontserbatutako dokumentu interesgarriek ere osatzen dute Euskal Herritarren Dokumentu Ondarea, dokumentuok 50 urte edo gehiago badituzte:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoan dauden eliza-erakundeak eta erlijioetako elkarte eta organoek.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoan dauden erakunde politiko eta sindikalek eta enpresarioen entitateak.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko kultura eta hezkuntza erakunde, fundazio eta elkarteak.
- d) Historian zehar, Euskal Autonomia Erkidegoan eragina izan duten familiek eta pertsonak.
- e) Beste edozein erakunde partikular edo pertsona fisikok.

4.- Se podrán, así mismo, considerar integrantes del Patrimonio Documental del Pueblo Vasco, a efectos de la aplicación del presente Decreto, a los documentos de interés de cualquier época producidos, reunidos, y conservados, formando el correspondiente Fondo de Archivo, en el ejercicio de sus funciones o actividades por Instituciones, administraciones y entidades públicas, no radicadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco, pero cuyo ámbito de actuación o jurisdicción haya incluido en el pasado o incluya en el presente alguna parte o la totalidad del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

5.- Igualmente, podrán ser considerados como integrantes del Patrimonio Documental los documentos de interés de una antigüedad de cincuenta o más años, que hayan sido producidos, reunidos y conservados en el desarrollo de sus actividades por cualquier persona o entidad privada, formando el correspondiente Fondo de Archivo no público o colección de documentos.

Artículo 4.— Declaración de Patrimonio Documental.

De conformidad con lo prevenido en el artículo 55. 3 de la Ley del Patrimonio Cultural Vasco, en expediente instruido al efecto de oficio o a instancia de particular y previo informe preceptivo del Consejo Asesor de Patrimonio Documental y Archivos el Gobierno Vasco podrá declarar constitutivos o integrantes del Patrimonio Documental Vasco los documentos, colecciones de documentos o fondos de archivo de titularidad privada y de una antigüedad inferior a los cincuenta años que merezcan tal consideración.

Artículo 5.— Dominio público.

1.- Todos los documentos integrantes del Patrimonio Documental del Pueblo Vasco que sean de titularidad de un ente público poseen la condición de bienes de dominio público, y no pueden ser enajenados, sometidos a traba, embargo o gravamen, ni adquiridos por prescripción.

2.- Cualquier persona o entidad privada que tenga en su poder, sin título legítimo, documentos cuya naturaleza los haga de forma notoria integrantes de un Fondo de Archivo o Colección de documentos de carácter público, está obligada a entregarlos al organismo competente para su incorporación al citado Fondo de Archivo.

Artículo 6.— Deber de conservación.

1.- Los titulares o poseedores de fondos de archivo, documentos y colecciones de documentos que formen parte del Patrimonio Documental del Pueblo Vasco, están obligados a atender su conservación y custodia, a permitir su consulta en los términos previstos en la legislación aplicable, y a facilitar, en su caso, las tareas de inspección por parte de la Administración pública competente, al objeto de velar por el cumplimiento de los deberes previstos en la legislación vigente del Patrimonio Cultural Vasco.

2.- De conformidad con lo prevenido en la Ley del Patrimonio Cultural Vasco, el incumplimiento de estas obligaciones podrá ser causa de expropiación, así como de las sanciones legalmente procedentes.

3.- Los titulares o poseedores en los que recaiga el deber de conservación a que se refiere el presente artículo, serán destinatarios de las ayudas y subvenciones públicas que, en su caso, se convoquen para tal finalidad.

4.- Dekretu honen aplikazioari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoz kanpoko zenbait erakunde, administrazio eta entitate publikok beren funtzio edo zereginetan dihardutela sortu, bildu edo kontserbatutako dokumentu interesgarriek ere osatzen dute Euskal Herritarren Dokumentu Ondarea, dokumentuok diren garaikoak direla, baldin eta artxibo-fondoa eratuta badago eta erakunde horien jurisdikzioak edo jardute eremuak Euskal Autonomia Erkidegoa edo horren zati bat hartu edo hartzen badu.

5.- Halaber, edozein pertsona edo entitate pribatuk bere funtzio edo zereginetan diharduela sortu, bildu edo kontserbatutako dokumentu interesgarriek ere osatzen dute Euskal Herritarren Dokumentu Ondarea, dokumentuok 50 urte edo gehiago badituzte eta artxibo-fondoa edo dokumentu-bilduma eratu bada.

4. artikulua.— Dokumentu Ondare deklaratzeari.

Euskal Kultura Ondarearen Legearen 55.3 artikuluaaren arabera, titular pribatuen esku egonik, 50 urte baino gutxiago duten zenbait dokumentu, dokumentu-bilduma edo artxibo-fondok ere osa dezakete Euskal Herritarren Dokumentu Ondarea. Horretarako, Administrazioak espediente bat hasi beharko du, bere kabuz edo interesatuak eskatuta, eta Eusko Jaurlaritzako Dokumentu Ondarearen eta Artxiboen Aholkularitza Kontseiluak aldeko irizpena eman behar du.

5. artikulua.— Jabari publikoa.

1.- Euskal Herritarren Dokumentu Ondarean sartutako agiriak, horien titularra erakunde publiko bat bada, jabari publikokoak dira eta ezin dira besterendu, bahitu, zergapetu edo preskripzioz eskuratu, ezta horien kontrako trabak jarri ere.

2.- Edozein pertsona edo entitate pribatuk artxibo-fondo edo dokumentu-bilduma publiko bateko osagai nabarmenak diren agiriak baditu eta horien gaineko legezko titulurik ez badu, eskumena duen erakundeari eman behar dizkio, artxibo-fondoan sar ditzan.

6. artikulua.— Kontserbatu beharra.

1.- Euskal Herritarren Dokumentu Ondarea osatzen duten artxibo-fondo, dokumentu edo dokumentu-bildumen titularrek edo jabeek agiri horiek kontserbatu eta zainduko dituzte; ikusteko modua ere egingo dute, aplikagarri den legerian ezarritako moduan, eta, hala bada, eskumena duen Administrazio publikoari ikuskatzeko aukera emango diote, Euskal Kultura Ondareari buruz indarrean dagoen legerian ezarritako betebeharrak konplitzen diren begira dezan.

2.- Euskal Kultura Ondarearen Legearen arabera, betebeharrak konplitu ezik, dokumentuen jabetza ken daiteke, edo lege ezarritako zehapenak jarri.

3.- Agiriak kontserbatzeko beharra duten titularrek edo jabeek berariaz horretarako eman daitezkeen laguntza eta dirulaguntza publikoen hartzaile izango dira.

Artículo 7.— Del Inventario del Patrimonio Documental Vasco.

1.- El Inventario del Patrimonio Documental Vasco previsto en el artículo 55 de la Ley del Patrimonio Cultural Vasco, constituye una parte integrante del Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, cuyo funcionamiento se regirá con arreglo a su normativa específica.

2.- Los documentos, fondos de archivo y colecciones de documentos que se inscriban en el Inventario del Patrimonio Documental Vasco disfrutarán del régimen de protección previsto para los bienes inventariados de naturaleza mueble en el título III de la Ley del Patrimonio Cultural Vasco y demás disposiciones que les resulten de aplicación.

3.- Todos los documentos, fondos de archivo y colecciones de documentos, cualesquiera que sea su titularidad, con una antigüedad de cincuenta ó más años quedan incorporados al Inventario del Patrimonio Documental Vasco sin necesidad de acto expreso de inscripción, según se contempla en el artículo 55.2 de la Ley del Patrimonio Cultural Vasco.

CAPÍTULO II DE LOS SERVICIOS DE ARCHIVO PÚBLICOS

Artículo 8.— Archivos públicos excluidos

De conformidad con lo previsto en el artículo 74 de la Ley del Patrimonio Cultural Vasco, quedan excluidos del ámbito de aplicación del presente Decreto los servicios de archivo de titularidad del Estado y de los Territorios Históricos todo ello sin perjuicio de su posible incorporación, mediante los correspondientes convenios, al Sistema Nacional de Archivos de Euskadi.

Artículo 9.— Obligatoriedad de su creación e instalaciones.

1.- Las entidades públicas que producen fondos de archivo o reúnen documentos, y colecciones documentales integrantes del Patrimonio Documental del Pueblo Vasco con arreglo al presente Decreto, dispondrán de su propio Servicio de Archivo.

2.- Los documentos, colecciones de documentos y fondos de archivo deberán hallarse depositados en locales que reúnan condiciones ambientales, de equipamiento y de seguridad adecuadas.

3.- El responsable del servicio de archivo elaborará y mantendrá, debidamente actualizado, un plan de emergencia que garantice la integridad del Fondo de Archivo ante posibles desastres que pudieren poner en peligro su conservación.

Artículo 10.— Funciones del Servicio de Archivo

1.- Los Servicios de Archivo, existentes o que se creen, tendrán la calificación legal de Servicio Público que recoge, organiza, evalúa, gestiona y difunde el patrimonio documental bajo su responsabilidad.

2.- El Servicio de Archivo deberá desarrollar, como mínimo, las siguientes funciones:

7. artikulua.— Euskal Dokumentu Ondarearen Inbentarioa.

1.- Euskal Dokumentu Ondarearen Inbentarioa, Euskal Kultura Ondarearen Legearen 55. artikuluan aurreikusia, Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorren zati bat da. Inbentario Orokor hori berariazko arauen arabera eraenduko da.

2.- Euskal Dokumentu Ondarearen Inbentarioan sartzen diren artxibo-fondo, dokumentu eta dokumentu-bildumek babes-araubide bat izango dute, hain zuzen ere, Euskal Kultura Ondarearen Legearen III. Tituluan eta aplikagarri diren gainontzeko xedapenetan inbentariatutako ondatsun higigarrientzat ezartzen dena.

3.- Berrogeita hamar urte edo gehiago dituzten dokumentu, artxibo-fondo eta dokumentu bildumak Euskal Dokumentu Ondarearen Inbentarioan sartuko dira besterik gabe, titularra dena dela eta berariazko inskripzio-egintzarik gabe, horixe xedatzen baitu Euskal Kultura Ondarearen Legearen 55.2 artikulua.

II. KAPITULUA ARTXIBO-ZERBITZU PUBLIKOAK

8. artikulua.— Kanpo gelditzen diren artxiboak.

Estatuaren eta lurralde historikoen artxibo-zerbitzuei ez zaie Dekretu hau aplikatuko, horrela xedatzen baita Euskal Kultura Ondarearen Legearen 74. artikuluan. Hala ere, zerbitzu horiek Euskadiko Artxibo Sistema Nazionalean sartu ahal izango dira, horretarako hitzarmena sinatuz gero.

9. artikulua.— Sortzeko obligazioa eta instalazioak.

1.- Euskal Herritarren Dokumentu Ondarea osatzen duten artxibo-fondoak, dokumentuak edo dokumentu-bildumak Dekretu honen arabera sortzen edo biltzen dituzten erakunde publikoek beren artxibo-zerbitzua izango dute.

2.- Dokumentuak, dokumentu-bildumak eta artxibo-fondoak barnegi, ekipamendu eta segurtasun baldintza egokiak dituzten lokaletan gordeko dira.

- Argitalpenen salmenta, nahiz paperezko euskarrietan, nahiz elektronikoetan.
- Matrikulak: mintegiak, kongresuak, jardunaldiak eta kurtsoak.
- Jantokiko zerbitzuak.
- Dokumentuen edo liburuen kopia soilak ematea.”

Segunda.— Se faculta al titular del Departamento de Hacienda y Administración Pública para dictar las disposiciones precisas para el desarrollo del presente Decreto.

Tercera.— El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Bigarrenen.— Ahalmena ematen zaio Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari Dekretu hau garatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Hirugarrenen.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren bihar-munean jarriko da indarrean dekretu hau.

Artxibo sistemaren arautegia

Reglamento del sistema de archivo

ORDEN de 19 de diciembre de 2005, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, del reglamento del sistema de archivo de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

.....
.....
En Vitoria-Gasteiz, a 19 de diciembre de 2005.
La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

AGINDUA, 2005eko abenduaren 19koa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena; horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Administrazio Instituzionaleko artxibo sistemaren arautegia ezartzen da.

.....
.....
Vitoria-Gasteiz, 2005eko abenduaren 19a.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

La Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 43.3 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, procedió a regular la administración, defensa y conservación del Patrimonio del País Vasco. Y en desarrollo de dicha Ley, el Decreto 232/2000, de 21 de noviembre, aprobaba un Reglamento regulador de los Servicios de Archivo y Patrimonio Documental del País Vasco, con el que se pretendía una homogeneización y coordinación de la gestión en dicha materia, dando respuesta a los problemas de la gestión diaria de los Servicios de Archivo de la Comunidad Autónoma.

Posteriormente, en virtud del Decreto 174/2003, de 22 de julio, de organización y funcionamiento del Sistema de Archivo de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, se determina la organización y el funcionamiento de los agentes que participan en la gestión de los archivos de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi, como parte integrante del Sistema Nacional de Archivos de Euskadi.

Este Decreto establece a su vez, en su Disposición Final Segunda, la facultad de quien ejerza la titularidad del Departamento de Hacienda y Administración Pública para dictar las disposiciones precisas para su desarrollo.

Siendo esto así, la presente Orden viene a establecer un reglamento que complete el marco normativo regulador del referido sistema de archivo, concretando los procesos y actuaciones en dicha materia, así como las responsabilidades que en relación a los mismos se asignan a cada uno de los archivos que se integran en el Sistema de Archivo de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Mediante esta Orden, se pretende proporcionar a los organismos y personal que intervienen en la producción y gestión de la documentación generada por la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi una herramienta indispensable para el mejor desempeño de las tareas de gestión documental, y ello siempre en el marco de la aplicación de criterios de calidad y transparencia que deben regir la actuación de la Administración.

Los archivos de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi desarrollarán una función activa, en la medida en que proporcionan servicios para una eficaz gestión de la Administración y, al mismo tiempo, constituyen elementos clave en la protección y custodia del patrimonio documental garantizando, asimismo, los derechos de los ciudadanos y de la propia Administración en este ámbito.

En el Reglamento se contempla, por una parte, la definición de los conceptos básicos y necesarios para su correcta comprensión, facilitando el uso de un lenguaje común de relación entre las unidades productoras de la documentación y los responsables de los archivos. Por otra parte, se establecen unos principios generales para el tratamiento, conservación, acceso y servicio de la documentación, dejando el desarrollo de aspectos específicos del tratamiento documental para su concreción en los correspondientes manuales. Y, finalmente, se procede a la regulación de los procesos y tareas técnicas comunes a todos los archivos del Sistema.

Por todo ello,

DISPONGO:

Uztailaren 3ko 7/1990 Legeak, Euskal Kultur Ondareari buruzkoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 43.3 artikuluan xedatutakoa betez, Euskal Herriko ondarearen administrazioa, defentsa eta kontserbazioa arautu zituen. Lege hori garatze aldera, 232/2000 Dekretuak, azaroaren 21ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko artxibo-zerbitzuen eta dokumentu-ondarearen arauak onetsi ziren. Horren helburua arlo horren kudeaketa homogeneizatu eta koordinatzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Artxibo Zerbitzuen eguneroko kudeaketan sortutako arazoei erantzuna ematea izan zen.

Ondoren, uztailaren 22ko 174/2003 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioari Artxibo Sistemaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoak, ezartzen duenari jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Administrazio Instituzionaleko artxiboen kudeaketan parte hartzen duten agenteen antolaketa eta funtzionamendua ezarri zen (artxibo horiek Euskal Herriko Artxiboen Sistema Nazionalean barneratzen dira).

Halaber, dekretu horrek, azken xedapenetako bigarrenean, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren titulartasuna duenari ematen dio bera garatzeko ahalmena.

Hori horrela, agindu honek aipatutako artxibo-sistemaren arau-multzoa osatuko duen erregelamendua ezartzen du; horren bidez, arlo horretako prozesuak eta jarduketak zehazten ditu, baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Administrazio Instituzionaleko Artxibo Sistemaren barneratzen diren artxiboetako bakoitzari esleitzen zaizkion erantzukizunak ere.

Agindu honen helburua da dokumentuen kudeaketa-lanak hobeto betetzeko ezinbesteko tresna Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Administrazio Instituzionaleko dokumentazioa ekoizten eta kudeatzen parte hartzen duten organismo eta langileen eskura jartzea; hori guztia, administrazioaren jarduna zuzendu behar duten kalitate eta gardentasunaren irizpideak aplikatuta.

Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren artxiboek zeregin aktiboa dute; izan ere, administrazioa modu eraginkorrean kudeatzeko zerbitzuak ematen dituzte, dokumentu-ondarea babestu eta zaintzeko funtsezko elementuak dira eta, horrez gain, arlo honetan herritarrek eta administrazioak berak dituzten eskubideak ere bermatzen dituzte.

Arautegian, batetik, hori behar bezala ulertzeko beharrezkoak diren oinarritzko kontzeptuak definitzen dira; horiei esker, harremanetarako mintzaira komuna erabil dezakete dokumentazioa sortzen duten unitateek eta artxiboen arduradunek. Bestetik, berriz, printzipio orokorrak ezartzen dira dokumentazioa landu, kontserbatu, bertara jo eta eskaintzeko; dokumentuen tratamenduari buruzko alderdi espezifikoak kasuan kasuko eskuliburuetan garatuko dira. Azkenik, sistemako artxibo guztien prozesu eta zeregin tekniko guztiak arautzen dira.

Hori guztia dela-eta, honako hau

XEDATU DUT:

TÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.— Objeto.

Es objeto del Reglamento:

- a) La regulación de los flujos de documentación entre los distintos archivos que se integran en el Sistema de Archivo de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- b) La normalización de los distintos procesos y actividades de tratamiento de la documentación a realizar en cada uno de estos archivos.
- c) Determinar las actuaciones necesarias en orden a facilitar el derecho de acceso a los archivos a las personas físicas y jurídicas.

Artículo 2.— Ámbito de aplicación.

Las disposiciones contenidas en el presente Reglamento serán de aplicación en todo el Sistema de Archivo de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Artículo 3.— Definiciones y conceptos básicos.

En la aplicación de este Reglamento y para la correcta comprensión de lo en él dispuesto, serán de aplicación los conceptos archivísticos básicos desarrollados en la legislación vigente:

- a) Se entiende por Acceso a la documentación la disponibilidad de la misma para su consulta.
- b) Se entiende por Archivo, la instancia responsable del tratamiento técnico, difusión y conservación de los fondos documentales.
- c) Se entiende por Calendarios de conservación los instrumentos que identifican las series documentales y establecen su permanencia en cada subsistema, su nivel de conservación o eliminación y su accesibilidad.
- d) Se entiende por Ciclo de vida de los documentos, la agrupación de fases por las que atraviesa un documento: creación, mantenimiento, uso y eliminación o conservación definitiva.
- e) Se entiende por Cuadro de Clasificación el instrumento de gestión que refleja la organización del fondo documental y aporta los datos esenciales de su estructura.
- f) Se entiende por Descripción de los fondos documentales el análisis de los documentos de archivo y la elaboración de instrumentos que faciliten el conocimiento y consulta de los fondos documentales.
- g) Se entiende por Documento de archivo, toda información registrada, independientemente de su forma y características físicas, recibida, creada o conservada por una institución, entidad o individuo en el desempeño de sus funciones.
- h) En contraposición a la documentación de archivo, se considera Documentación de apoyo informativo a aquellos documentos (impresos, fotocopias de disposiciones normativas, folletos, etc.) cuya utilidad para la Administración radica exclusivamente en su contenido in-

I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. *artikulua*.— Xedea.

Arautegiak honako xede hauek ditu:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Administrazio Institutuzionaleko Artxibo Sisteman barneratzen diren artxiboen arteko dokumentu-fluxuak arautzea.
- b) Artxibo horietako bakoitzean prestatu beharreko dokumentazioa lantzeko prozesu eta jarduerak finkatzea.
- c) Pertsona fisiko eta juridikoei artxiboetara jotzeko eskubidea gauzatze aldera beharrezkoak diren jarduketak zehaztea.

2. *artikulua*.— Aplikazio-eremua.

Arautegi honetan jasotako xedapenak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Administrazio Institutuzionaleko Artxibo Sistema osoari aplikatuko zaizkio.

3. *artikulua*.— Definizioak eta oinarrizko kontzeptuak.

Arautegi hau aplikatze aldera eta bertan xedatutakoa behar bezala uler dadin, indarreko legerian artxiboei dagokienez garatzen diren oinarrizko kontzeptuak aplikatuko dira:

- a) Dokumentaziorako sarbidea izateak esan nahi du dokumentazioa kontsultak egiteko eskuragarri dagoela.
- b) Artxiboa dokumentu-funtsen tratamendu teknikoaz, hedapenaz eta kontserbazioaz arduratzen den instantzia da.
- c) Kontserbatzeko egutegiak esaten dugunean, dokumentu-segidak identifikatu eta azpi-sistemetako bakoitzean mantendu beharreko denbora, kontserbazio- edo ezabatze-maila eta eskuragarritasuna ezartzen dituzten tresnez ari gara.
- d) Dokumentuen bizi-zikloa dokumentuak igarotzen dituen faseen multzoa da: sorrera, mantentzea, erabilera eta ezabapena edo behin betiko kontserbazioa.
- e) Sailkapen-koadroa dokumentu-funtsaren antolaketa islatu eta horren egituraren funtsezko datuak jasotzen dituen kudeaketa-tresna da.
- f) Dokumentu-funtsen deskribapenean artxibo-dokumentuak aztertzen dira eta dokumentu-funtsak ezagutzea eta kontsultatzea ahalbidetzen duten tresnak prestatzen dira.
- g) Artxibo-dokumentua erakunde, entitate edo gizabanakoren batek bere zereginak burutzerakoan jaso, sortu edo kontserbatzen duen erregistratutako informazio guztia da, horren forma eta ezaugarri fisikoak edozein direla ere.
- h) Artxibo-dokumentazioa ez bezala, informazio-laguntzako dokumentazioa administrazioak kudeaketa administratiboa errazte aldera informazioa lortzeko bakarrik erabiltzen dituen do-

formativo para apoyo de la gestión administrativa, por tanto no es documentación susceptible de integración en los expedientes ni de conservación en los archivos.

- i) Se entiende por Documento electrónico de archivo todo documento de archivo en soporte electrónico ya sea porque se ha creado mediante una aplicación informática o bien porque se ha digitalizado.
- j) Se entiende por Documentos Vitales el conjunto de documentos esenciales, que se consideran necesarios para asegurar el normal desarrollo de las funciones y actividades críticas desarrolladas por la Administración Pública.
- k) Se entiende por Expediente el conjunto ordenado de documentos y actuaciones que sirven de antecedente y fundamento a la resolución administrativa, así como las diligencias encaminadas a ejecutarla.
- l) Se entiende por Expurgo de la documentación el proceso de eliminación o borrado de documentos por cualquier medio que impida su reconstrucción y posterior uso.
- m) Se entiende por Fondo de archivo, todo conjunto orgánico de documentos, conservado de manera organizada de forma que se garantice la difusión conveniente de su información.
- n) Se entiende por Gestión de la Documentación el conjunto de tareas y procesos técnicos orientados a obtener la mayor eficacia y rentabilidad en el tratamiento de los documentos por parte de las unidades administrativas productoras de la misma.
- o) Se entiende por Identificación documental el proceso de recopilación de información y estudio de cada una de las series documentales generadas por la Administración.
- p) Se entiende por Instrumento de Descripción el documento que relaciona o describe un conjunto de unidades documentales y que permite la localización y recuperación de los documentos. Dependiendo de la descripción realizada, los instrumentos de descripción podrán presentar distinto nivel de detalle de la información: desde una información amplia y genérica, hasta una descripción más específica y concreta.
- q) Se entiende por Reprografía de fondos documentales el conjunto de técnicas y procedimientos de copia o microcopia de los fondos documentales conservados en el archivo.
- r) Se entiende por Restauración el proceso técnico que tiene por objeto recuperar la integridad física y funcional de los documentos mediante la corrección del deterioro y los daños sufridos, y la restitución de los documentos a su estado original en la medida en que sea posible, teniendo en cuenta el respeto a la originalidad e integridad del documento y la distinción entre la parte del documento no tratada y la parte restaurada.
- s) Se entiende por Selección de la documentación el proceso de determinación de los documentos que van a ser objeto de eliminación o conservación de acuerdo con los plazos que se establezcan en el Calendario de Conservación.
- t) Se entiende por Serie documental, el conjunto de documentos o expedientes producidos en el desarrollo de una función o actividad administrativa regulada por una norma de procedimiento.
- u) Se entiende por Sistema de Archivo el conjunto de normas, órganos, centros y servicios vinculados a la gestión de los archivos.
- v) Se entiende por Tipo Documental la unidad documental básica, que presenta unas características estructurales similares derivada del ejercicio de una misma función y producida por

kumentuak dira (inprimakiak, arauzko xedapenen fotokopiak, liburuxkak eta abar). Hortaz, dokumentazio hori ez da espedienteetan integratuko, ezta artxiboetan mantenduko ere.

- i) Artxiboko dokumentu elektronikoa euskarri elektronikoan emandako artxiboko dokumentu orori esaten zaio, bai aplikazio informatikoaren bidez sortutakoari bai digitalizatuari.
- j) Ezinbesteko dokumentuak Herri Administrazioak garatzen dituen zeregin eta jarduera erabakigarriak behar bezala gauzatze aldera beharrezkoak diren funtsezko dokumentuak dira.
- k) Espedientea administrazio-ebazpenaren aurrekari eta oinarri gisa hartzen diren dokumentu eta jardunen multzo ordenatua da; halaber, espedienteak administrazio-ebazpena gauzatzera bideratutako izapideak ere barneratzen ditu.
- l) Dokumentazioa garbitzea edozein bitarteko erabilita dokumentuak ezabatu edo kentzeko prozesua da, aurrerago berritu eta erabil ez daitezten.
- m) Artxibo-funtsa modu antolatuan kontserbatuta dagoen dokumentu-multzo organikoa da, bertan jasotako informazioa behar bezala hedatzen dela bermatzeko.
- n) Dokumentazioaren kudeaketa administrazio-unitate sortzaileek dokumentuen azterketa ahalik eta eraginkor eta errentagarriena izatea lortzera bideratutako zeregin eta prozesu teknikoen multzoa da.
- o) Dokumentuen identifikazioa informazioa biltzeko eta administrazioak sortutako dokumentu-segidetako bakoitza aztertzeko prozesua da.
- p) Deskribapen-tresnak dokumentu-unitateen multzoa aipatu edo deskribatzen du eta dokumentuak kokatu eta berreskuratzea ahalbidetzen du. Egindako deskribapenaren arabera, deskribapen-tresnetan xehetasun-maila bat izango du informazioak: hau da, informazio zabala eta orokorra izan daiteke edo deskribapen espezifiko eta zehatzagoa.
- q) Dokumentu-funtsen erreprografia artxiboan jasotako dokumentu-funtsak kopiatu edo mikrokopiatzeko teknika eta prozeduren multzoa da.
- r) Zaharberritzea hondatutako zatia eta jasandako kalteak konponduta dokumentuen osotasun fisiko eta funtzionala leheneratzea da, baita -ahal den neurrian- dokumentuak jatorrizko egoerara ekartzea ere; hori guztia, dokumentuaren originaltasuna eta osotasuna errespetatuta eta ukitu gabeko eta zaharberritutako dokumentu-zatien arteko bereizketa eginez.
- s) Dokumentazioaren aukeraketa Kontserbatzeko Egutegian ezartzen diren epeen barruan ezabatu edo kontserbatutako diren dokumentuak zehazteko prozesua da.
- t) Dokumentu-segida prozedura-arauaren bidez erregulatutako administrazio-eginkizun edo jarduera garatzerakoan sortzen diren dokumentu edo espedienteen multzoa da.
- u) Artxibo-sistema artxiboen kudeaketari lotutako arau, organo, zentro eta zerbitzuen multzoa da.
- v) Dokumentu tipoa oinarrizko dokumentu-unitatea da. Horren egituraren ezaugarriak antzekoak dira, zeregin bera burutzearen ondorioz egindakoak eta organo edo unitate

un determinado órgano o unidad en el desarrollo de una competencia concreta que viene regulada por una norma de procedimiento.

- w) Se entiende por Valoración documental el proceso de análisis y determinación de los valores de los documentos de archivo en función de los efectos que causan y de la información que contienen. Estos valores condicionan la conservación temporal o permanente de la documentación.
- x) Se entiende por Valor primario de los documentos el que va unido a la finalidad inmediata de su producción. Entre los valores primarios se incluyen el jurídico-administrativo, el fiscal y el judicial.
- y) Se entiende por Valor secundario de los documentos aquel que responde a motivos no definidos inicialmente en su creación. Son valores secundarios los de carácter informativo e histórico.

TÍTULO II ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO DE LOS ARCHIVOS DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL E INSTITUCIONAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

CAPÍTULO I ARCHIVOS DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL E INSTITUCIONAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

Artículo 4.— Tipología.

En el Sistema de Archivo de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi se establecen los siguientes subsistemas:

- Archivos de gestión o de oficina.
- Archivos centrales de la Administración Institucional.
- Archivo General.
- Archivos territoriales.
- Archivo Histórico.

Artículo 5.— Archivos de Gestión o de Oficina de la Administración General e Institucional.

1.- Los archivos de gestión o de oficina están integrados por la documentación existente en las unidades administrativas en que orgánicamente se estructuran los diferentes Departamentos, Organismos Autónomos, Entes Públicos de Derecho Privado y Sociedades Públicas del Gobierno Vasco, documentación que se corresponde con la etapa inicial o activa del ciclo de vida de los documentos.

2.- Es responsabilidad de los archivos de gestión:

- a) El control de los documentos generados por la actividad de la unidad productora durante el plazo de tramitación.

zehatz batek sortuak prozedura-arauaren bidez erregulatutako eskumen zehatza garatze aldera.

- w) Dokumentu-balorazioa dakartzaten ondorioen eta biltzen duten informazioaren arabera artxiboko dokumentuek dituzten balioak aztertu eta zehazteko prozesua da. Balio horiek dokumentazioa aldi baterako edo betirako kontserbatzea baldintzatzen dute.
- x) Dokumentuen oinarritzko balioa horiek sortzeak duen berehalako xedearekin erlazionatuta dago. Balio nagusien artean, balio juridiko administratiboa, zerga-balioa eta balio judiziala barneratu behar dira.
- y) Dokumentuen bigarren mailako balioa sortu zenean definitu ez ziren arrazoietan oinarritutako da. Bigarren mailako balioak informaziokoak eta historikoak dira.

II. TITULUA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA ADMINISTRAZIO INSTITUZIONALEKO ARTXIBOEN ANTOLAMENDUA ETA FUNTZIONAMENDUA

I. KAPITULUA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA ADMINISTRAZIO INSTITUZIONALEKO ARTXIBOAK

4. artikulua.— Tipologia.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Administrazio Institutuzionaleko Artxibo Sisteman honako azpisistema hauek ezartzen dira:

- Kudeaketako edo bulegoko artxiboak.
- Administrazio Institutuzionaleko artxibo zentralak.
- Artxibo Nagusia.
- Lurraldeko artxiboak.
- Artxibo Historikoa.

5. artikulua.— Administrazio Orokorreko eta Administrazio Institutuzionaleko Kudeaketako edo Bulegoko Artxiboak.

1.- Kudeaketako edo bulegoko artxiboek Eusko Jaurlaritzaren sail, erakunde autonomo, zuzenbide pribatuko ente publiko eta sozietate publikoetan nagusi diren administrazio-unitateetako dokumentazioa barneratzen dute; dokumentazio hori bat dator dokumentuen bizikloaren hasierako aldiarekin edo aldi aktiboarekin.

2.- Kudeaketako artxiboei honako zeregin hauek dagozkie:

- a) Unitate ekoizleak izapidetze-aldian sortutako dokumentuak kontrolatzea.

- b) La correcta conservación de los expedientes completos, de manera que se evite la dispersión y fraccionamiento de la documentación perteneciente a un mismo expediente.
- c) La identificación, clasificación y descripción de la documentación para facilitar su localización y acceso.
- d) La gestión de las consultas y préstamos de la documentación existente en estos archivos.
- e) La realización de las tareas de depuración y expurgo o transferencia de la documentación teniendo en cuenta los calendarios de conservación definidos para la misma y la normativa relativa a estos procesos.

3.- Como norma general, la documentación permanecerá en estos archivos mientras dure su tramitación administrativa. Una vez al año se transferirán al siguiente nivel de archivo los expedientes que se hayan concluido, siguiendo los plazos establecidos en el Calendario de Conservación.

4.- En el supuesto de que determinadas series documentales sean objeto de frecuente consulta, la Dirección del Sistema de Archivo autorizará la permanencia de las mismas en los archivos de gestión mientras sea necesario.

Artículo 6.— Los Archivos Centrales de la Administración Institucional.

1.- Los archivos centrales de la Administración Institucional son responsables de la organización, custodia y conservación de la documentación generada por los Organismos Autónomos, Entes Públicos de Derecho Privado y Sociedades Públicas que integran la Administración Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2.- Son funciones de los Archivos Centrales de la Administración Institucional:

- a) El asesoramiento a los archivos de gestión o de oficina de las unidades administrativas de su entidad.
- b) La correcta conservación de la documentación generada por el organismo en instalaciones adecuadas. Esta documentación dará lugar a un único fondo documental.
- c) La elaboración del cuadro de clasificación documental del organismo.
- d) La identificación, clasificación y descripción de la documentación para facilitar la localización y acceso a la misma.
- e) La gestión de las consultas y préstamos de la documentación existente en estos archivos.
- f) La realización de las tareas de expurgo de la documentación, teniendo en cuenta los calendarios de conservación definidos para la misma y la normativa para su ejecución controlada.
- g) La realización de transferencias de documentación al Archivo General de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi en los plazos que se acuerden con el mismo.

3.- Como norma general no se transferirán al Archivo General documentación con una antigüedad inferior a los 10 años, salvo en caso de disolución de la Entidad en que necesariamente deberá pasar a su custodia por el Archivo General de la Administración.

- b) Espedienteak osorik eta behar bezala gordetzea, espediente bereko dokumentazioa barreiatu eta zatikatu ez dadin.
- c) Dokumentazioa identifikatu, sailkatu eta ekoiztea, errazagoa izan dadin horiek aurkitzea eta eskuratzea.
- d) Artxibo horietako dokumentazioaren kontsultak eta maileguak kudeatzea.
- e) Dokumentazioa garbitzea edo lekualdatzea, horretarako ezarritako kontserbatzeko egutegiak eta prozesu horiei dagozkien arauak aintzat hartuta.

3.- Arau orokor gisa, dokumentazioa administrazio-izapideek iraun artean mantenduko da artxibo horietan. Urtean behin, artxiboko hurrengo mailara transferituko dira amaituta dauden espedienteak, Kontserbatzeko Egutegian ezarritako epeei jarraiki.

4.- Dokumentu-segida batzuk maiz kontsultatzen badira, Artxibo Sistemaren Zuzendaritza Nagusiak baimena emango du kudeaketako artxiboak behar den denboraz bertan geratzeko.

6. artikulua.— Administrazio Instituzionaleko artxibo zentralak.

1.- Administrazio Instituzionaleko artxibo zentralak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde autonomo, zuzenbide pribatuko entitate publiko eta sozietate publikoek sortutako dokumentazioa antolatu, babestu eta kontserbatzeaz arduratuko dira.

2.- Administrazio Instituzionaleko artxibo zentralak honako zeregin hauek dituzte:

- a) Dagokien entitateko administrazio-unitateen kudeaketako edo bulegoko artxiboetarako aholku ematea.
- b) Organismoak sortutako dokumentazioa behar bezala eta instalazio egokietan kontserbatzea. Dokumentazio hori dokumentu-funts bakarrean bilduko da.
- c) Organismoaren dokumentuen sailkapen-koadroa prestatzea.
- d) Dokumentazioa identifikatu, sailkatu eta ekoiztea, errazagoa izan dadin horiek aurkitzea eta eskuratzea.
- e) Artxibo horietako dokumentazioaren kontsultak eta maileguak kudeatzea.
- f) Dokumentazioa garbitzea, horretarako ezarritako kontserbatzeko egutegiak eta garbitze-lanak kontrolpean garatzeko arautegia aintzat hartuta.
- g) Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Artxibo Nagusira dokumentazioa transferitzea, bi artxiboek adostutako epeen barruan.

3.- Oro har, ez da lekualdatuko 10 urte baino gutxiago duen dokumentaziorik, entitatea desagitera doanean izan ezik, orduan nahitaez geratuko baita Administrazioaren Artxibo Nagusiaren zaindapean.

Artículo 7.— El Archivo General.

1.- El Archivo General de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi recibe y gestiona la documentación remitida por los archivos de gestión o de oficina y por los archivos centrales de la Administración Institucional, una vez finalizado el plazo de permanencia en estos archivos. Asimismo recibirá la documentación remitida por la Administración del Estado o por las Administraciones Forales en virtud del traspaso de competencias a la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2.- Este archivo realiza las siguientes funciones generales en relación a la gestión y tratamiento de la documentación de archivo:

- a) La recepción y control de la documentación procedente de los archivos de gestión de la Administración General, de los archivos centrales de la Administración Institucional, así como de otras Administraciones Públicas en virtud del traspaso de competencias que se aprueben.
- b) La recepción, control y organización, si procede, de nuevos fondos documentales como consecuencia de actos inter vivos o mortis causa de adquisición aprobados por la Dirección del Sistema de Archivo.
- c) La organización de fondos documentales ya existentes en este archivo.
- d) La gestión de las consultas y préstamos de la documentación depositada en el archivo.
- e) La realización del expurgo de la documentación en los plazos previstos en el Calendario de Conservación de la Documentación de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- f) La conservación y custodia de los fondos documentales existentes durante el plazo de permanencia de la documentación en el Archivo General.
- g) La transferencia al Archivo Histórico de aquella documentación para la que se establece su conservación permanente.
- h) Participación activa en los procesos de identificación y valoración de la documentación, de los que resultan:
 - 1.- El Calendario de Conservación de la Documentación de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
 - 2.- La concreción de los plazos de permanencia de las series documentales en los archivos del Sistema y, con ello, la programación de las transferencias periódicas de documentación.
 - 3.- La concreción de los criterios de accesibilidad que afecta a la documentación de la Administración.
 - 4.- Apoyar en la racionalización y normalización de la producción documental de dicha Administración.
- i) Seguimiento y revisión, en su caso, de los procedimientos técnicos de gestión de archivo, de los instrumentos de control de los mismos y del calendario de conservación de la documentación definido.
- j) Información y difusión de los fondos documentales del archivo.

7. *artikulua*.— Artxibo Nagusia.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Administrazio Institutuzionaleko Artxibo Nagusiak, behin kudeaketako edo bulegoko artxiboetan eta Administrazio Institutuzionaleko artxibo zentraletan egonaldia amaituta, horietatik datorkion dokumentazioa jaso eta kudeatzen du. Era berean, Estatuko Administrazioak edo foru-administrazioek bidalitako dokumentazioa ere bilduko du, Euskal Autonomia Erkidegoaren aldeko eskumen-transferentzia dela-eta.

2.- Artxibo honek honako eginkizun orokor hauek burutzen ditu artxiboko dokumentazioa kudeatu eta aztertzeari dagokionez:

- a) Administrazio Orokorraren kudeaketako artxiboetatik, Administrazio Institutuzionalaren artxibo zentraletatik nahiz beste herri-administrazio batzuetatik datorren dokumentazioa jaso eta kontrolatzen du, kasuan kasu transferitzen diren eskumenak aintzat hartuta.
- b) Artxibo Sistemaren Zuzendaritzak onesten dituen inter vivos edo mortis causa esku-ratze-egintzen ondoriozko dokumentu-funts berriak bildu, kontrolatu eta antolatzen ditu, hala badagokio.
- c) Lehendik ere bazeuden dokumentu-funtsak antolatzen ditu.
- d) Artxibo honetako dokumentazioaren kontsultak eta maileguak kudeatzen ditu.
- e) Dokumentazioa garbitzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Dokumentazioa Kontserbatzeko Egutegietan ezarritako epeen barruan.
- f) Dokumentu-funtsak kontserbatu eta zaintzen ditu dokumentazioak Artxibo Nagusian eman behar duen aldian zehar.
- g) Modu iraunkorrean kontserbatu beharreko dokumentazioa Artxibo Historikora transferitzen du.
- h) Dokumentazioa identifikatu eta baloratzeko prozesuetan parte-hartze aktiboa du. Prozesu horien bidez, honakoak gauzatzen dira:
 - 1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Administrazio Institutuzionaleko dokumentazioa kontserbatzeko egutegia prestatzen da.
 - 2.- Dokumentu-segidek Sistemako artxiboetan eman duten denbora zehazten da eta, horrekin batera, dokumentazioa zenbatero transferitu behar den planifikatzen da.
 - 3.- Administrazioaren dokumentazioan eragina duen irisgarritasunaren irizpideak zehazten dira.
 - 4.- Administrazio horretako dokumentu-ekoizpena arrazionalizatu eta normaltzeko ahaleginak egiten dira.
- i) Artxiboak kudeatzeko prozedura teknikoen, horiek kontrolatzeko tresnen eta dokumentazioa kontserbatzeko egutegiaren jarraipena eta berrikuspina egiten ditu.
- j) Artxiboko dokumentu-funtsei buruzko informazioa ematen du.

- k) Promoción de actividades de cooperación y fomento con otros archivos externos al Sistema y con las administraciones locales y las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma de Euskadi en lo relativo a la organización de cursos de formación, a la información sobre existencia de fondos complementarios, etc.

3.- Como norma general, la documentación permanecerá en este archivo durante un plazo no superior a los cincuenta años, una vez concluida su vigencia administrativa.

Artículo 8.— Los Archivos Territoriales.

1.- Los archivos territoriales constituyen las delegaciones del Archivo General en los edificios de gestión centralizada del Gobierno Vasco en los Territorios Históricos.

2.- Son funciones de los archivos territoriales:

- a) La recepción y control de la documentación procedente de los archivos de gestión localizados en los edificios de gestión centralizada del Gobierno Vasco en los Territorios Históricos.
- b) La gestión de las consultas y préstamos de la documentación.
- c) La conservación y custodia de los fondos documentales en ellos depositados.
- d) La realización de las tareas de expurgo y/o transferencia de la documentación al Archivo General teniendo en cuenta el Calendario de Conservación de la Documentación, y la normativa relativa a estos procesos.
- e) La colaboración con la Dirección del Sistema de Archivo en la actualización de los instrumentos de gestión de la documentación, responsabilizándose de la cumplimentación y mantenimiento de los instrumentos de descripción de la documentación en ellos depositada.

Artículo 9.- Archivo Histórico de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

1.- De acuerdo con la Disposición Transitoria Primera del Decreto 174/2003, de 22 de julio, de organización y funcionamiento del Sistema de Archivo de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, hasta la entrada en funcionamiento del Archivo Histórico del Gobierno Vasco, toda la documentación que tenga la consideración de histórica, en los términos previstos en la Ley 7/1990, de Patrimonio Cultural, y se haya generado en el ámbito de actuaciones de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi será gestionada, organizada y custodiada por el Sistema de Archivo de la misma.

2.- El Archivo Histórico de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi realiza las siguientes funciones en relación con la gestión y tratamiento de la documentación de carácter histórico:

- a) Recepción de aquella documentación, con una antigüedad igual o superior a los 50 años, para la que se determina la conservación permanente, que ha sido generada por la acción política y administrativa de la Administración General e Institucional, o bien por la Administración Central y/o Administraciones Forales, en el desarrollo de competencias transferidas a la Administración Autónoma Vasca.
- b) Recepción de nuevos fondos documentales y colecciones de documentos de especial relevancia para el conocimiento de la historia del País Vasco, que ingresen en el Archivo General.

- k) Lankidetzak eta sustapen-jarduerak bultzatzea Sistematik kanpo dauden beste artxibo batzuekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunekin, besteak beste, presakuntza-ikastaroak antolatzeari eta beste funts batzuen inguruko informazioa emateari dagokienez.

3.- Arau orokor moduan, dokumentazioa artxibo honetan gehienez berrogeita hamar urtez egongo da, administrazioan duten indarraldia amaitzen denetik zenbatzen hasita.

8. *artikulua*.— Lurraldeko artxiboak.

1.- Lurraldeko artxiboak Eusko Jaurlaritzak lurralde historikoetan dituen kudeaketa zentralizatuko eraikinetan kokatuta dauden Artxibo Nagusiaren ordezkariak dira.

2.- Lurraldeko artxiboen zereginak honako hauek dira:

- a) Eusko Jaurlaritzak lurralde historikoetan dituen kudeaketa zentralizatuko eraikinetan kokatuta dauden kudeaketako artxiboetatik datorren dokumentazioa hartzea eta kontrolatzea.
- b) Dokumentazioaren kontsultak eta maileguak kudeatzea.
- c) Bertan jasotako dokumentu-funtsak kontserbatzea eta zaintzea.
- d) Dokumentazioa garbitzea eta/edo Artxibo Nagusira transferitzea, dagokion kontserbatzeko egutegia eta prozesu horiei dagozkien arauak aintzat hartuta.
- e) Artxibo Sistemaren Zuzendaritzarekin lankidetzan aritzea dokumentazioa kudeatzeko tresnak eguneratzen; batez ere, artxiboetan jasotako dokumentazioa deskribatzeko tresnak behar bezala erabili eta mantentzeaz arduratzen da.

9. *artikulua*.— Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Administrazio Instituzionaleko Artxibo Historikoa.

1.- Uztailaren 22ko 174/2003 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Artxibo Sistemaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzkoak, lehen xedapen gehigarrian dioenarekin bat etorriz, Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoa indarrean jarri artean, kultur ondareari buruzko 7/1990 Legean aurreikusitako baldintzetan historikotzat jotzen den dokumentazio guztia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Administrazio Instituzionalaren jardunen eremuan sortu bada, horren Artxibo Sistemak kudeatu, antolatu eta zainduko du.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Administrazio Instituzionaleko Artxibo Historikoa honako zeregin hauek burutuko ditu dokumentazio historikoa kudeatu eta aztertzeari dagokionez:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoari emandako eskumenez baliatzerakoan Administrazio Orokorrak eta Administrazio Instituzionalak, nahiz Administrazio Zentralak eta/edo foru-administrazioek abiarazitako ekintza politiko eta administratibotik sortu den 50 urteko edo gehiagoko dokumentazioa jasotzen du; dokumentazio horri kontserbazio iraunkorra eman zaio.
- b) Euskal Herriko historia ezagutzeko bereziki garrantzitsuak diren dokumentu-funts eta bilduma berriak jasotzen ditu, horiek Artxibo Nagusian barneratzen direnean.

- c) Custodia y organización de los fondos documentales de consideración histórica.
- d) Atención a las consultas de los investigadores y difusión del contenido de sus fondos.

CAPÍTULO II PERSONAL

Artículo 10.— De los archivos de oficina o de gestión.

Los archivos de oficina o de gestión serán organizados y gestionados por, al menos, personal auxiliar o administrativo designado por cada responsable de la unidad administrativa.

El responsable de cada archivo de oficina será también el interlocutor del Archivo General para la gestión de transferencias y consultas de documentos en este nivel de archivo.

Artículo 11.— De los Archivos Centrales.

Los Archivos Centrales de la Administración Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi serán gestionados por personal con formación técnica específica.

Para el desempeño de sus funciones, los archivos arriba indicados contarán con la asistencia técnica y las directrices proporcionadas por la Dirección del Sistema de Archivo.

Artículo 12.— Del Archivo General.

El Archivo General de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi estará atendido por:

- a) Personal con formación técnica específica en organización de archivos y tratamiento de la documentación.
- b) Personal auxiliar y subalterno para la realización de las diversas tareas administrativas y de servicio de la documentación.

Artículo 13.— Confidencialidad.

Todo el personal que preste sus servicios en los archivos integrados en el Sistema de Archivo de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi estará obligado a guardar la debida discreción y confidencialidad en relación con la información contenida en los documentos a los que por razón de su cargo tenga acceso, en los términos establecidos en la legislación vigente.

Artículo 14.— Planes de formación.

La Dirección del Sistema de Archivo de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi elaborará, en colaboración con el Instituto Vasco de Administración Pública, Planes Anuales de Formación para el personal que desempeñe funciones de archivo, distinguiendo entre:

- c) Historikotzat hartzen diren dokumentu-funtsak zaindu eta antolatzen ditu.
- d) Ikerlarien kontsultei erantzuten die eta funtsen edukia zabaltzen du.

II. KAPITULUA LANGILEAK

10. *artikulua*.— Bulegoko edo kudeaketako artxiboak.

Bulegoko edo kudeaketako artxiboak administrazio-unitate bakoitzaren arduradunak izendatzen dituen laguntzaile edo administrariak antolatu eta kudeatuko dituzte, gutxienez.

Bulegoko artxibo bakoitzeko arduraduna izango da, era berean, Artxibo Nagusiarekin hitz egingo duena artxibo-maila honetan bideratu beharreko dokumentuen transferentziak eta kontsultak egiteko.

11. *artikulua*.— Artxibo Zentralak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Instituzionaleko Artxibo Zentralak prestakuntza tekniko espezifikoak duten langileek kudeatuko dituzte.

Euren zereginak burutzeko, goian adierazitako artxiboek Artxibo Sistemaren Zuzendaritzak eskaintzen dituen laguntza teknikoak eta ildoak izango dituzte.

12. *artikulua*.— Artxibo Nagusia.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Artxibo Nagusiaz honako hauek arduratuko dira:

- a) Artxiboen antolamenduan eta dokumentazioaren tratamenduan prestakuntza teknikoak duten langileak.
- b) Laguntzaileak eta mendeak, zeregin administratiboak eta dokumentazioa ematekoak burutzeko.

13. *artikulua*.— Konfidentzialtasuna.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Administrazio Instituzionaleko Artxibo Sisteman barneratutako artxiboetan diharduten langile guztiek nahitaez zuhurtziaz eta konfidentzialtasun osoz jokatu beharko dute bere lanean esku artean erabili behar dituzten dokumentuetan jasotako informazioari dagokionez, indarreko legeriak ezarritako baldintzei jarraiki.

14. *artikulua*.— Prestakuntza-planak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Administrazio Instituzionaleko Artxibo Sistemaren Zuzendaritzak, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin lankidetzan, urteko prestakuntza-planak prestatuko ditu artxiboko eginkizunak garatzen dituen langileentzat. Bi motatako planak bereizten dira:

- a) Planes de formación para personal responsable de los archivos de oficina y los archivos centrales de la Administración Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi que se ajusten a las necesidades formativas de este personal.
- b) La formación permanente del personal técnico que desempeña su labor en el Archivo General de la Administración Pública y en el Archivo Histórico.

CAPÍTULO III INSTALACIONES Y CONSERVACIÓN DE LA DOCUMENTACIÓN

Sección primera: Plan de infraestructuras y equipamientos

Artículo 15.— Instalaciones.

La Dirección del Sistema de Archivo de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi será responsable de velar para que todos los archivos del Sistema cuenten con instalaciones adecuadas para el mantenimiento y correcta conservación de la documentación.

Artículo 16.— Plan de Infraestructuras y equipamiento.

Periódicamente la Dirección del Sistema de Archivo elaborará un Plan de Infraestructuras y Equipamiento de los archivos del Sistema que contemple:

- a) La mejora de las instalaciones de archivo y de las condiciones técnicas de conservación.
- b) La provisión del equipamiento de archivo necesario para el correcto funcionamiento de cada uno de los centros de archivo del Sistema.
- c) La dotación de recursos especializados para el control y tratamiento de los fondos documentales (digitalización, restauración...).
- d) La valoración y respuesta a las nuevas necesidades de espacios de archivo que se planteen.
- e) La elaboración de un programa para la conservación de los soportes fotográficos, digitales y electrónicos.
- f) La elaboración de un Programa de Contingencias en el que se concreten las actuaciones y recursos necesarios para reaccionar ante las situaciones de riesgo y emergencias que puedan afectar a la conservación de la documentación.

Artículo 17.— Inspección de instalaciones.

En el cumplimiento de su responsabilidad, la Dirección del Sistema de Archivo de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi desempeñará funciones de inspección de las instalaciones y condiciones técnicas de los archivos del Sistema.

- a) Bulegoko artxiboez eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Institutuzionala artxibo zentralerantz arduratzen diren langileentzako prestakuntza-planak, horien prestakuntza-beharretara egokituak.
- b) Herri Administrazioaren Artxibo Nagusian eta Artxibo Historikoan diharduen pertsonal teknikoaren etengabeko prestakuntza.

III. KAPITULUA INSTALAZIOAK ETA DOKUMENTAZIOAREN KONTSERBAZIOA

Lehenengo atala: Azpiegitura eta ekipamendu plana

15. *artikulua*.— Instalazioak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Administrazio Institutuzionalen Artxibo Sistemaren Zuzendaritzak arduratuko da Sistemako artxibo guztiek instalazio egokiak izan ditzaten dokumentazioa mantendu eta behar bezala kontserbatzeko.

16. *artikulua*.— Azpiegitura eta Ekipamendu Plana.

Aldian behin, Artxibo Sistemaren Zuzendaritzak Azpiegitura eta Ekipamendu Plana prestatuko du. Plan horrek honakoak barne hartuko ditu:

- a) Artxiboko instalazioak eta kontserbazio-baldintza teknikoak hobetzea.
- b) Sistemako artxibo-zentro bakoitzaren funtzionamendua egokia izan dadin beharrezko ekipamendua eskaintzea.
- c) Dokumentu-funtsak kontrolatu eta tratatzeko baliabide espezializatuez hornitzea (digitalizazioa, zaharberritzea...).
- d) Artxiboak jartzeko sortzen diren espazio-behar berriak baloratzea eta horiei erantzutea.
- e) Argazki-euskarriak eta euskarri digitalak eta elektronikoak kontserbatzeko programa prestatzea.
- f) Arriskuen programa prestatzea; bertan, dokumentazioaren kontserbazioari eragin diezaioketen arrisku- eta larrialdi-egoerei aurre egiteko beharrezko jardunak eta baliabideak zehaztuko dira.

17. *artikulua*.— Instalazioen ikuskapena.

Dagokion erantzukizuna betetze aldera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Administrazio Institutuzionala Artxibo Sistemaren Zuzendaritzak Sistemako artxiboen instalazioak eta baldintza teknikoak ikuskatuko ditu.

Sección Segunda: Locales e instalaciones de archivos

Artículo 18.— Ubicación.

Los depósitos de archivo deben ubicarse en plantas bajas (rasante) o plantas superiores y en zonas alejadas de potenciales peligros de contaminación industrial, incendios o inundaciones.

Artículo 19.— Distribución.

En el Archivo General del Gobierno Vasco, en los Archivos Territoriales y en los Archivos Centrales de la Administración Institucional se preverá la correcta zonificación y diferenciación de espacios:

- a) Espacios para depósito de documentación.
- b) Zonas para consulta de la documentación.
- c) Áreas de trabajo para la realización de las tareas de organización, descripción y tratamiento de la documentación recibida.

Artículo 20.- Servicios específicos.

El Archivo General de la Administración deberá contar con las instalaciones y equipamiento necesarios para la realización de las funciones específicas de:

- a) Restauración de la documentación.
- b) Actividades de difusión del patrimonio documental.

Artículo 21.— Condiciones a cumplir por los depósitos de archivo.

1.- Los depósitos de archivo cumplirán las condiciones constructivas y de seguridad necesarias para la correcta conservación y protección de la documentación.

2.- En estos archivos se realizará un estricto control de las condiciones ambientales de los depósitos, con la finalidad de evitar todo riesgo de deterioro de la misma. Concretamente se establecen las siguientes condiciones básicas:

- a) La temperatura del depósito debe mantenerse constante, entre 15 y 21.°C, sin oscilaciones superiores a ± 3 .°C.
- b) La humedad relativa se situará en torno al 45-65%, sin superar oscilaciones superiores a ± 5 %.
- c) La relación entre temperatura y humedad relativa en el depósito debe ser constante.
- d) Los depósitos deberán contar con un sistema de ventilación natural controlada para la constante renovación del aire.
- e) La intensidad luminosa de los depósitos oscilará entre los 50 y los 100 lux (no pudiendo exceder de 100 lux).

Bigarren atala: Artxiboen lokalak eta instalazioak

18. artikulua.— Kokapena.

Artxiboen gordailuak beheko solairuetan (sestra) nahiz goikoetan egongo dira kokatuta, eta industria-kutsadura, suteak edo uholdeak gerta daitezkeen lekuetatik urrun.

19. artikulua.— Banaketa.

Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Nagusian, lurraldeko artxiboetan eta Administrazio Instituzionalaren artxibo zentraletan, zonak eta espazioak behar bezala banatuko dira:

- a) Dokumentazioa gordetzeko espazioak.
- b) Dokumentazioa kontsultatzeko zonak.
- c) Jasotako dokumentazioa antolatu, deskribatu eta tratatzeko lan-eremuak.

20. artikulua.— Zerbitzu espezifikoak.

Administrazioaren Artxibo Nagusiak honako eginkizun espezifikoak burutzeko beharrezko instalazioak eta ekipamendua izan behar ditu:

- a) Dokumentazioa zaharberritzea.
- b) Dokumentu-ondarea ezagutarazteko jarduerak.

21. artikulua.— Artxibo-gordailuek bete beharreko baldintzak.

1.- Artxibo-gordailuek dokumentazioa behar bezala kontserbatu eta babesteko beharrezkoak diren eraikuntza- eta segurtasun-baldintzak beteko dituzte.

2.- Artxibo horietan, gordailuen inguru-baldintzak zorrotz kontrolatuko dira, bertan jasotzen den dokumentazioa honda ez dadin. Zehazki, ondokoak izango dira oinarrizko baldintzak:

- a) Gordailuko tenperaturak konstantea izan behar du, 15 eta 21.°C bitartean, gehienez ere 3.°C-ko gorabeherekin.
- b) Hezetasun erlatiboa % 45-65 bitartean egongo da, gehienez ere % 5eko gorabeherekin.
- c) Gordailuan tenperaturaren eta hezetasun erlatiboaren arteko erlazioak konstantea izan behar du.
- d) Gordailuek aireztapen natural kontrolatuko sistema izan behar dute airea etengabe berritzeko.
- e) Gordailuetako argiaren intentsitatea 50 eta 100 lux bitartekoa izango da (inoiz ez dira 100 lux gaingituko).

Artículo 22.— Normas básicas para los archivos de oficina o gestión.

Los archivos de gestión se localizarán, bien en las oficinas o en lugares próximos a las mismas, por lo que, al no poderse cumplir las condiciones antes indicadas, se adoptarán las siguientes medidas:

- a) Evitar la acumulación excesiva de documentación en los archivos de las oficinas.
- b) Mantener físicamente separada la documentación de archivo y el almacén de material de oficina.
- c) Diferenciar entre la documentación de archivo generada por la unidad administrativa y la documentación propia del personal de la misma, que no debe conservarse en los archivos de oficina.
- d) Evitar la exposición de la documentación a la luz solar.
- e) Alejar la documentación de fuentes de calor, de humedad y de campos magnéticos por el perjuicio que estos últimos suponen para la conservación de la documentación en soporte electrónico.
- f) Limpieza periódica del espacio destinado a archivo para evitar los efectos negativos del polvo y los insectos.

Artículo 23.— Situaciones especiales.

1.- Cuando en los archivos de oficina o gestión y territoriales se detecten deficiencias en las instalaciones o insuficiencia de medios personales que puedan afectar negativamente a la conservación de la documentación, la Dirección del Sistema de Archivo, en cumplimiento de sus funciones inspectoras, podrá proceder al depósito de la documentación en el Archivo General del Gobierno Vasco, hasta la desaparición de los problemas detectados.

2.- Cuando la documentación salga de estos archivos, deberá remitirse necesariamente al Archivo General, no pudiéndose ubicar documentación alguna en locales ajenos a los edificios de oficinas de la Administración Pública, salvo en los casos en los que así se determine por la Dirección del Sistema de Archivo.

Artículo 24.— Equipamiento de los archivos.

1.- El equipamiento de los archivos debe ser el adecuado para contener correctamente la documentación, protegida del polvo, de las deformaciones así como del deterioro derivado de su uso inadecuado.

2.- Los depósitos de archivo deberán contar con armarios compactos y/o estanterías para la instalación de la documentación. Asimismo, contarán con sistemas de seguridad de protección contra incendios y robos.

3.- En los archivos de oficina los archivadores y muebles que contengan los documentos de archivo deberán asegurar la custodia y restricción del acceso a la documentación, por lo que estos muebles no se podrán ubicar en pasillos y/o sin cerraduras que garanticen la confidencialidad.

22. artikulua.— Bulegoko edo kudeaketako artxiboetarako oinarrizko arauak.

Kudeaketako artxiboak bulegoetan edo horietatik gertu kokatuko dira; hori horrela, lehen aipatutako baldintzak bete ezingo direnez, honako neurri hauek ezarriko dira:

- a) Bulegoetako artxiboetan dokumentazioaren gehiegizko pilaketa ekiditea.
- b) Artxiboko dokumentazioa eta bulegoko materialaren biltegia fisikoki bereiz mantentzea.
- c) Administrazio-unitateak sortutako artxiboko dokumentazioa eta unitateko langileen dokumentazioa bereiztea, azken hori ez baita bulegoko artxiboetan gorde behar.
- d) Dokumentazioa eguzkiaren argipean ez jartzea.
- e) Dokumentazioa bero- eta hezetasun-iturrietatik urrun mantentzea, baita eremu magnetikoetatik ere, euskarri elektronikoen dagoen dokumentazioari kalte eragin baitiezaiokete.
- f) Artxiboetarako espazioa aldian behin garbitzea, hautsaren eta intsektuen ondorio negatiboak ekiditeko.

23. artikulua.— Egoera bereziak.

1.- Bulegoko edo kudeaketako artxiboetan eta lurraldeko artxiboetan, instalazioetan ga-beziak antzematen badira edo bitarteko pertsonal nahikoa ez dagoela eta horrek eragin negatiboa izan badezake dokumentazioaren kontserbazioan, Artxibo Sistemaren Zuzendaritzak, dagozkion ikuskatze-zereginak betetze aldera, Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Nagusian gordailutu ahal izango du, antzemandako akatsak desagertu bitartean.

2.- Dokumentazioa artxibo horietatik ateratzean, nahitaez Artxibo Nagusira eraman behar da; ezin da dokumentaziorik jarri Herri Administrazioaren bulegoak ez diren beste leku batzuetan, Artxibo Sistemaren Zuzendaritzak hala ezartzen duenean izan ezik.

24. artikulua.— Artxiboetako ekipamendua.

1.- Artxiboetako ekipamenduak dokumentazioa behar bezala jasotzeko egokia izan behar du; alegia, dokumentazioa hautsetik babestuta egongo da eta desitxuratzeko eta erabilera desgokiaren ondorioz hondatzea ekidindo da.

2.- Artxiboko gordailuetan dokumentazioa instalatzeko armairu trinkoak eta/edo apalak egongo dira. Halaber, sute eta lapurretetatik babesteko segurtasun-sistemak ere egongo dira.

3.- Bulegoko artxiboetan, artxiboko dokumentuak jasotzen dituzten altzariek dokumentaziorako sarbidea zaindu eta mugatu behar dute, eta, beraz, altzari horiek ezingo dira korridoretan kokatu eta/edo sarrailek izango dituzte, konfidentzialtasuna bermatzeko.

Sección tercera: Conservación de los soportes de documentación

Artículo 25.— Documentación en soporte papel.

1.- Se utilizará papel reciclado para fotocopias, elementos de cartería, cuadernos y todo tipo de documento cuyo carácter sea temporal, como circulares, comunicaciones, albaranes, notas de régimen interno o borradores.

2.- No se utilizará papel reciclado en los expedientes y documentos administrativos.

3.- Se utilizará papel de buena calidad para garantizar la máxima perdurabilidad de la documentación de conservación permanente, en especial para los Documentos Vitales.

4.- En el Calendario de Conservación de la Documentación se indicará el tipo de papel a utilizar en cada serie documental.

5.- Se utilizarán las unidades de instalación adecuadas a cada tipo de soporte y al estado de tramitación de la documentación:

- a) En los archivos de oficina se guardará bien en archivadores de carpetas colgantes, o bien en carpetas AZ debidamente identificadas.
- b) Finalizada la tramitación, la documentación se introducirá en cajas de archivo, de cartón neutro (PH 5,5), las cuales deberán estar perfectamente identificadas y rotuladas para facilitar la localización de la información que contienen.

6.- Se establecen las siguientes unidades de instalación normalizadas:

- a) Caja Tipo A: 26 x 9,5 x 37,5 cm, para documentos en formato DIN A-4.
- b) Caja Tipo B: 28 x 40 x 39 cm, para historias clínicas.
- c) Caja Tipo C: 28 x 40 x 39 cm, para conservar cajas de archivo.

Artículo 26.— Documentación en otros soportes.

1.- La documentación en soportes distintos del papel se conservará en armarios y contenedores adecuados para su mejor preservación:

- a) La documentación cartográfica se instalará en armarios planeros o tubos portaplanos para facilitar su acceso y conservación.
- b) Las microformas se guardarán en cajas metálicas.
- c) Los disquetes, CD-ROM, DVD, etc. en ficheros.

2.- Para la conservación de los documentos electrónicos:

- a) Se realizarán periódicamente copias de seguridad que garanticen la conservación de la información.
- b) Se realizarán las conversiones y o migraciones que se determinen en el Calendario de Conservación para los documentos de conservación permanente.

Hirugarren atala: Dokumentazio-euskarrien kontserbazioa

25. *artikulua*.— Papereko dokumentazioa.

1.- Paper birziklatua erabiliko da fotokopietan, postetxeko elementuetan, koadernoetan eta aldi baterako sortzen diren mota guztietako dokumentuetan, besteak beste, zirkularretan, jakinarazpenetan, emate-agirietan, barne-erregimeneko oharretan eta zirriborroetan.

2.- Ez da paper birziklatua erabiliko espedienteetan eta administrazio-dokumentuetan.

3.- Kalitate oneko papera erabiliko da kontserbazio iraunkorreko dokumentazioak, bereziki ezinbesteko dokumentuek, ahalik eta gehien iraungo dutela bermatzeko.

4.- Dokumentazioa kontserbatzeko egutegian dokumentu-segida bakoitzean erabili beharreko paper-mota adieraziko da.

5.- Euskarri-mota bakoitzera eta dokumentazioaren izapidetze-egoerara egokitutako instalazio-unitateak erabiliko dira:

- a) Bulegoko artxiboetan, dokumentazioa zintzilikatutako paper-zorroak dituzten altzarietan edo behar bezala identifikatutako AZ paper-zorroetan gordeko da.
- b) Izapidetzea amaitzean, dokumentazioa kartoi neutrozko (PH 5,5) artxibo-kutxetan sartuko da; kutxa horiek behar bezala identifikatuta egongo dira, jasotzen duten informazioa aurkitzea errazagoa izan dadin.

6.- Honako instalazio-unitate normalizatu hauek ezarri dira:

- a) A motako kutxa: 26 x 9,5 x 37,5 cm, DIN A-4 formatuko dokumentuetarako.
- b) B motako kutxa: 28 x 40 x 39 cm, historia klinikoetarako.
- c) C motako kutxa: 28 x 40 x 39 cm, artxibo-kutxak kontserbatzeko.

26. *artikulua*.— Beste euskarri batzuetako dokumentazioa.

1.- Papera ez den beste euskarri batzuetan emandako dokumentazioa hobeto babesteko armairu eta edukiontzietan jasoko da:

- a) Dokumentazio kartografikoa planoak jasotzeko armairu edo hodietan instalatuko da, kontsultatu eta kontserbatzeko errazagoa izan dadin.
- b) Mikroformak kutxa metalikoetan gordeko dira.
- c) Disketeak, CD-ROMak, DVDak eta abar fitxategietan gordeko dira.

2.- Dokumentu elektronikoak kontserbatzeko:

- a) Aldi behin babeskopiak egingo dira informazioa kontserbatzen dela bermatzeko.
- b) Kontserbazio iraunkorreko dokumentuetarako kontserbatzeko egutegiak zehazten dituen bihurketak eta/edo migrazioak egingo dira.

3.- Las condiciones específicas para la conservación de la documentación sobre soporte electrónico será objeto de desarrollo en la Norma Técnica que se elabore al efecto.

Sección cuarta: Restauración de la documentación

Artículo 27.— Programa de restauración.

En el cumplimiento de las funciones relativas a la correcta conservación y preservación de la documentación, la Dirección del Sistema de Archivo elaborará un programa de restauración de la documentación que contemple:

- a) La determinación de los criterios y planificación de las intervenciones de restauración, limpieza y/o desinfección, en base al estado de los documentos y al interés de su conservación y consulta.
- b) La planificación de los recursos necesarios para desarrollar el programa de restauración.

CAPÍTULO IV SERVICIOS DE LOS ARCHIVOS

Artículo 28.— Tipo de servicios.

1.- Los archivos de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de conformidad con el derecho de los ciudadanos de acceso a los mismos, así como en el cumplimiento de sus funciones y de sus compromisos en la mejora continua de la gestión y transparencia de la Administración, prestarán los siguientes servicios:

- a) Informar a los usuarios sobre los fondos documentales conservados en los Archivos.
- b) Expedición de certificaciones.
- c) Expedición de Tarjeta de usuario del Archivo General y del Archivo Histórico.
- d) Autorización temporal para la consulta de fondos de los Archivos Centrales de la Administración Institucional y/o del Archivo General e Histórico de la Administración Pública.
- e) Facilitar el acceso a la documentación y a la reproducción de la misma de acuerdo con las normas y procedimientos establecidos.
- f) Resolución de consultas no presenciales.
- g) Recepción, análisis y solución de las quejas y sugerencias presentadas por los usuarios.
- h) Recepción y control de las transferencias de documentación.
- i) Informar y proponer a la Dirección del Sistema soluciones para facilitar la consulta de fondos.
- j) Informar y proponer a la Dirección del Sistema de Archivo soluciones a las necesidades de archivo relativas al tratamiento técnico de la documentación, a la conservación de la documentación, al equipamiento y a la situación de los depósitos de archivo.

2.- La prestación de estos servicios se hará de forma presencial y telemática según los casos.

3.- Euskarri elektronikoan emandako dokumentazioa kontserbatzeko baldintza espezifikoak xede horretarako prestatzen den arau teknikoaren bidez garatuko dira.

Laugarren atala: Dokumentazioaren zaharberritzea

27. *artikulua*.— Leheneratze-programa.

Dokumentazioa behar bezala kontserbatu eta zaintzeko zereginak betetzerakoan, Artxibo Sistemaren Zuzendaritzak dokumentazioa leheneratzeko programa prestatuko du; bertan, honako alderdi hauek zehaztuko ditu:

- a) Dokumentazioa leheneratu, garbitu eta/edo desinfektatzeko irizpideak eta esku-hartzeak, dokumentuen egoera eta horiek kontserbatu eta kontsultatzeko interesa aintzat hartuta.
- b) Leheneratze-programa garatzeko beharrezkoak diren baliabideak.

IV. KAPITULUA ARTXIBOETAKO ZERBITZUAK

28. *artikulua*.— Zerbitzu-mota.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Administrazio Instituzionaleko artxiboek, horietara jotzeko biztanleek duten eskubidearekin bat etorritik, eta Administrazioaren kudeaketa eta gardentasuna etengabe hobetzeko zereginak eta konpromisoak betetze aldera, honako zerbitzu hauek eskainiko dituzte:

- a) Erabiltzaileei artxiboetan jasotako dokumentu-funtsei buruzko informazioa ematea.
- b) Ziurtagiriak ematea.
- c) Artxibo Nagusiaren eta Artxibo Historikoaren erabiltzaile-txartela egitea.
- d) Aldi baterako baimena ematea Administrazio Instituzionaleko artxibo zentraletan eta/edo Herri Administrazioko Artxibo Nagusian eta Artxibo Historikoan jasotako funtsak kontsultatzeko.
- e) Dokumentaziora jotzeko eta hori kopiatzeko erraztasunak ematea, ezarritako arau eta prozedurekin bat etorritik.
- f) Aurrez aurre egindakoak ez diren kontsultak ebatzea.
- g) Erabiltzaileek aurkeztutako kexak eta iradokizunak hartzea, aztertzea eta konpontzea.
- h) Dokumentazio-transferentziak egitea eta kontrolatzea.
- i) Sistemaren zuzendaritzari funtsen kontsulta errazteko irtenbideak ematea eta proposatzea.
- j) Artxibo Sistemaren Zuzendaritzari irtenbideak ematea artxiboetan dokumentazioaren tratamendu teknikoari eta kontserbazioari, ekipamenduari eta artxibo-gordailuen egoerari dagokienez sortutako beharrei erantzuteko.

2.- Zerbitzu horiek aurrez aurre eta telematikoki eskainiko dira, kasuan kasu.

Artículo 29.— Plan de calidad.

En relación al Plan de Calidad a implantar en el Sistema de Archivo:

- a) La Dirección del Sistema de Archivo será responsable de la elaboración y gestión del Modelo de Calidad a aplicar en el Sistema de Archivo en el que se definan explícitamente los compromisos de servicio que cada centro de archivo prestará a sus usuarios.
- b) Para medir y evaluar el grado de cumplimiento de los objetivos de calidad establecidos, se determinarán los indicadores que han de ser tenidos en cuenta.
- c) El grado de cumplimiento de los mismos se medirá y cuantificará con el objeto de identificar posibles desviaciones, así como para elaborar los planes de mejora correspondientes.

TÍTULO III PROCESOS TÉCNICOS EN LA GESTIÓN DE DOCUMENTOS Y ARCHIVOS DEL SISTEMA

CAPÍTULO I LA GESTIÓN DE DOCUMENTOS Y ARCHIVOS

Artículo 30.— Ámbito.

El sistema de gestión contempla tanto los documentos en papel, como los documentos digitales y electrónicos.

Artículo 31.— Manual de Gestión.

La Dirección del Sistema de Archivo mantendrá actualizado el Manual de Gestión de Documentos y archivos de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi, que recogerá la normativa técnica y los procedimientos que afecten a la gestión de los documentos y los archivos del Sistema.

Artículo 32.— Informatización.

El Sistema Informático de Gestión del Sistema de Archivo dará soporte a los procesos y tareas de gestión de archivo definidos en el presente Reglamento desde una perspectiva integral, teniendo en cuenta:

- El tratamiento global y uniforme de la documentación desde su inicio en las unidades administrativas productoras.
- La incorporación de los documentos electrónicos.
- Las diferentes aplicaciones informáticas de gestión de expedientes.
- La necesaria coordinación y regulación del tratamiento archivístico de la documentación en los distintos centros de archivo del Sistema.

29. artikulua.— Kalitate-plana.

Artxibo Sisteman ezarri beharreko kalitate-planari dagokionez:

- a) Artxibo Sistemaren Zuzendaritza arduratuko da Artxibo Sisteman aplikatu beharreko kalitate-eredua prestatu eta kudeatzeaz. Eredu horretan, beren beregi definituko dira artxibozentroetako bakoitzak erabiltzaileei eskainiko dizkien zerbitzuen konpromisoak.
- b) Ezarritako kalitate-helburuak zein neurritan betetzen diren neurtu eta ebaluatzeko, kon-tuan hartu beharreko adierazleak zehaztuko dira.
- c) Horiek zein neurritan betetzen diren neurtu eta zenbatestearen helburua egon daitezkeen desbideratzeak identifikatzea eta kasuan kasuko hobekuntza-planak prestatzea da.

III. TITULUA SISTEMAKO DOKUMENTU ETA ARTXIBOEN KUDEAKETARAKO PROZESU TEKNIKOAK

I. KAPITULUA DOKUMENTU ETA ARTXIBOEN KUDEAKETA

30. artikulua.— Eremua.

Kudeaketa-sistemak papereko dokumentuak eta dokumentu digitalak eta elektronikoak barneratzen ditu.

31. artikulua.— Kudeaketako eskuliburua.

Artxibo Sistemaren Zuzendaritzak eguneratuta izango du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Administrazio Instituzionaleko dokumentuak eta artxiboak kudeatzeko eskuliburua; honek Sistemako dokumentu eta artxiboen kudeaketan eragina du-ten arau teknikoak eta prozedurak jasoko ditu.

32. artikulua.— Informatizazioa.

Artxibo Sistema kudeatzeko sistema informatikoak araudi honetan definitzen diren artxi-boak kudeatzeko prozesuak eta eginkizunak jasotzen ditu, ikuspegi orokor batetik; halaber, honakoak ere hartzen ditu aintzat:

- Dokumentazioaren tratamendu global eta uniformea egiten du, administrazio-unitateek ekoiztu zutenetik hasita.
- Dokumentu elektronikoak barneratzen ditu.
- Espedienteak kudeatzeko aplikazio informatikoak biltzen ditu.
- Sistemako artxibo-zentroetan garatzen den dokumentazioaren tratamendua nola koordina-tu eta arautu behar den zehazten du.

CAPÍTULO II INGRESOS DE DOCUMENTACIÓN EN LOS ARCHIVOS GENERAL E HISTÓRICO

Artículo 33.— Formalización.

Todo ingreso de documentos en los archivos General e Histórico se formalizará mediante un acta o relación de entrega y se anotará en el Registro General de Transferencias (anexo I).

Artículo 34.— Sistemas de ingreso.

Se establecen las siguientes vías de ingreso de documentación:

- a) Transferencias ordinarias.
- b) Transferencias extraordinarias.
- c) Ingresos por adquisición derivada de actos inter vivos o mortis causa.

Artículo 35.— Transferencia ordinaria.

1.- Se entiende por transferencia ordinaria el conjunto de procedimientos mediante los cuales los documentos de archivo pasan de un archivo del Sistema a otro, de acuerdo con el ciclo de vida de los mismos.

2.- Con carácter general, las transferencias ordinarias se llevarán a cabo con periodicidad anual y se referirán siempre a documentos de archivo y expedientes concluidos y completos y cuyo plazo de conservación sea superior a dos años.

3.- Las transferencias de ficheros automatizados se regirán por el régimen general de transferencias de documentos, sin perjuicio de que en la Norma Técnica para la gestión y archivo de documentos en soporte digital o electrónico se incluyan requerimientos específicos para su identificación y conservación.

Artículo 36.— Transferencia extraordinaria.

1.- Se entiende por transferencia extraordinaria el conjunto de procedimientos por los que se remite documentación a un archivo del Sistema, bien sea por traspaso de competencias entre las distintas Administraciones Públicas, o por circunstancias de carácter excepcional que dificulten o impidan la correcta conservación y consulta de la documentación en cualquiera de los archivos del Sistema.

2.- La realización de estas transferencias excepcionales requerirá la solicitud motivada por parte del archivo remitidor y la autorización de su recepción por el Archivo General.

Artículo 37.— Adquisición derivada de actos inter vivos o mortis causa.

1.- El ingreso de documentación derivada de la adquisición por actos inter vivos o mortis causa será aprobado por la Dirección del Sistema de Archivo.

2.- En el caso de cesión o legado de documentación, la consulta y reproducción de estos fondos se ajustará a las condiciones previstas en los actos de adquisición inter vivos o mortis causa.

II. KAPITULUA

ARTXIBO NAGUSI ETA HISTORIKOAN DOKUMENTAZIOA SARTZEA

33. *artikulua*.— Formalizazioa.

Artxibo Nagusian eta Historikoan dokumentazioa sartzeko egintza oro emate-akta edo zerrendaren bidez formalizatuko da eta transferentzien erregistro orokorrean (I. eranskina) jasoko da.

34. *artikulua*.— Sartzeko sistemak.

Dokumentazioa sartzeko honako bide hauek ezarri dira:

- a) Transferentzia arruntak.
- b) Ohiz kanpoko transferentziak.
- c) Inter vivos edo mortis causa egintzek eragindako eskuratzeen ziozko sarrerak.

35. *artikulua*.— Transferentzia arrunta.

1.- Ohiko transferentzia dokumentuak, beren bizi-zikloari jarraiki, Sistemako artxibo batetik bestera igarotzeko egin beharreko prozeduren multzoa da.

2.- Oro har, transferentzia arruntak urtero egingo dira eta bi urtetik gorako kontserbazio-epea duten artxiboko dokumentu eta espediente amaitu eta osatuei aplikatuko zaie.

3.- Fitxategi automatizatuen transferentziak dokumentu-transferentzien erregimen orokorrak zuzenduta egongo dira, euskarri digital edo elektronikoko dokumentuak kudeatu eta artxibatze arau teknikoan haiek identifikatu eta kontserbatzeko beharkizun espezifikoak barneratzeari kalterik egin gabe.

36. *artikulua*.— Ohiz kanpoko transferentzia.

1.- Ohiz kanpoko transferentzia Sistemako artxibo batera dokumentazioa bidaltzeko erabiltzen diren prozeduren multzoa da, herri-administrazioen artean eskumen-aldaketak gertatzen direnean edo Sistemako ezein artxibotan dokumentazioa kontserbatu eta kontsultatzeko zailtasunak edo eragozpenak dauden aparteko inguruabarrak sortzen direnean.

2.- Ohiz kanpoko transferentzia horiek egiteko, artxibo igorleak eskaera arrazoitua aurkeztu ondoren, Artxibo Nagusiak dokumentazioa jasotzeko baimena eman behar du.

37. *artikulua*.— Inter vivos edo mortis causa egintzek eragindako eskuratzek.

1.- Artxibo batean inter vivos edo mortis causa egintzek eragindako eskuratzeko zioz dokumentazioa sartu ahal izateko, Artxibo Sistemaren Zuzendaritzaren onespina izan behar da.

2.- Dokumentazioa lagapenean eman edo oinordetzan uzten bada, funts horien kontsulta eta kopia inter vivos edo mortis causa eskuratzeko-egintzetan aurreikusitako baldintzetara egokituko dira.

CAPÍTULO III TRANSFERENCIAS DE DOCUMENTACIÓN

Sección primera: Preparación de la documentación a transferir

Artículo 38.— Actuaciones preparatorias.

Todas las transferencias de documentación entre los distintos niveles de archivo que se realicen en el ámbito del presente Reglamento, se ajustarán al procedimiento aquí definido, realizándose con carácter previo las siguientes tareas:

1.- Selección de la documentación a transferir, de acuerdo con el calendario de conservación definido para la documentación.

2.- La documentación que se remita debe ser original o copia única, depurándose de los expedientes los duplicados, fotocopias, borradores (sólo en el caso de que éstos no existan se conservará la copia) y documentación de apoyo informativo.

3.- Eliminación de aquellos elementos materiales que impliquen un problema para la conservación de los documentos y expedientes: clips, gomas, carpetas de plástico, carpetas archivadoras, de anillas, etc. Los elementos metálicos de sujeción que sea necesario mantener serán sustituidos por otros plásticos.

4.- No se remitirá al archivo documentación suelta, expedientes incompletos o expedientes cuya tramitación administrativa no haya finalizado.

5.- La documentación se remitirá debidamente ordenada e identificada: no se aceptará documentación identificada bajo términos ambiguos del tipo de "varios", "documentación general" ni siglas o acrónimos sin desarrollar.

6.- Los expedientes deben individualizarse en carpetillas. En caso de tratarse de documentos sueltos -que no formen expedientes- también deberán introducirse en estas carpetillas.

7.- Las carpetillas deberán identificar claramente la documentación que contienen.

8.- Introducción de la documentación en cajas normalizadas, procurando no llenarlas en exceso. En ningún caso se meterán en las cajas carpetas, bolsas y plásticos.

9.- Identificación del contenido de las cajas de archivo con los siguientes datos, que deberán figurar en ambos lomos: Departamento y unidad productora, serie documental y años extremos de la documentación contenida, así como el número de orden de la caja.

Sección segunda: Formalización de las transferencias de documentación

Artículo 39.— Instrumentos de control.

Una vez preparada la documentación, se procederá a la cumplimentación de los correspondientes instrumentos de control:

III. KAPITULUA DOKUMENTU-TRANSFERENTZIAK

Lehenengo atala: Transferitu beharreko dokumentazioa prestatzea

38. artikulua.— Prestatzeko jardunak.

Arautegi hau aintzat hartuta artxibo-mailen artean egiten diren dokumentu-transferentzia guztiak hemen definitutako prozedurara egokituko dira; aurretik, honako hauek ere egingo dira:

1.- Transferitu beharreko dokumentuak aukeratuko dira, dokumentazio horri dagokion kontserbatzeko egutegiarekin bat etorriz.

2.- Igortzen den dokumentazioak jatorrizkoa edo kopia bakarrekota izan behar du; espedienteetatik baztertu egingo dira fotokopiak, zirriborroak (horiek ez daudenean bakarrik gordetako da kopia) eta informazio-laguntzako dokumentuak.

3.- Dokumentuak eta espedienteak kontserbatzeko arazoak sor ditzaketen elementu materialak ezabatuko dira: klipak, gomak, plastikozko paper-zorroak, artxibatze paper-zorroak, paper-zorro uztaidunak, e.a. Mantendu beharrekoak diren eusteko elementu metalikoak plastikozko beste batzuekin ordeztuko dira.

4.- Artxibora ez da dokumentu solterik, espediente osatugaberik edo administrazioko izapidetze-prozesua amaituta ez duen espedienterik bidaliko.

5.- Dokumentazioa behar bezala ordenatuta eta identifikatuta bidaliko da; ez da onartuko "askotarikoak" edo "dokumentazio orokorra" bezalako izendapen anbiguoren bat duen edo garatu gabeko sigla edo akronimoak dituen dokumentaziorik.

6.- Espedienteak banakako paper-zorro txikiagoetan jarri behar dira. Dokumentu solteak badi-ra -hau da, espedienterik osatzen ez badute-, horiek ere halako paper-zorro txikiagoetan sartuko dira.

7.- Paper-zorro txikiago horietan biltzen duten dokumentazioa behar bezala identifikatuta egongo da.

8.- Dokumentazioa kutxa normalizatueta sartuko da; ahal dela, kutzak ez dira gehiegi beteko. Kutxa horietan ez da inoiz paper-zorro, poltsa edo plastikorik sartuko.

9.- Artxibo-kutxen edukia honako datu hauen bidez identifikatuko da, bi bizkarretan adierazi beharrekoak: saila eta unitate ekoizlea, dokumentu-segida, ekarritako dokumentazioaren urte-kopurua, gehienez, eta kutxaren ordena-zenbakia.

Bigarren atala: Dokumentu-transferentzien formalizazioa

39. artikulua.— Kontrol-tresnak.

Behin dokumentazioa prestatuta, kasuan kasuko kontrol-tresnak beteko dira:

1.- Relación de Entrega de Documentos (anexo II): será el documento que acompañe a toda transferencia de documentos al archivo, con la finalidad de controlar los expedientes que se traspasan de un archivo a otro.

A cada serie documental deberá acompañar una Relación de Entrega diferente, aunque la transferencia de documentación se realice de manera simultánea.

En ningún caso, se aceptará documentación que no vaya acompañada de su correspondiente Relación de Entrega de Documentos.

2.- Relación de Contenido (anexo III): en ella se detallarán los expedientes que contiene la caja de archivo transferida, indicándose los siguientes datos para cada uno de los que pertenecen a una misma serie documental: n.º de caja de archivo y orden dentro de la misma, identificador del expediente, breve descripción del objeto y/o sujeto del expediente.

Artículo 40.— Impresos soporte.

Ambas relaciones se cumplimentarán en soporte electrónico, pudiéndose remitir por medios telemáticos.

Artículo 41.— Formalización del depósito.

Hasta que se generalice el uso de la firma electrónica, las relaciones de entrega habrán de imprimirse para formalizar el depósito con las firmas y sellos del responsable de la oficina remitente en su calidad de depositante y del responsable del archivo receptor, en calidad de depositario.

Sección tercera: Recepción y control de las transferencias realizadas

Artículo 42.— Autorización de la Transferencia.

1.- Con anterioridad al envío de la documentación, se remitirá al Archivo receptor la Relación de Entrega de Documentos provisional y los inventarios en formato electrónico para que, una vez supervisados, se autorice el traslado de las cajas a los depósitos.

2.- El Archivo General no admitirá el depósito de documentación en caso de:

- a) Descripciones incompletas o poco claras.
- b) No corresponderse con las competencias asignadas a la oficina remitente o se trate de copias de todo o parte de un expediente.
- c) Tratarse de documentación de apoyo o de carácter personal.

Artículo 43.— Pertinencia de la Transferencia.

En tanto los cuadros de clasificación y los calendarios de conservación de la documentación no estén aprobados, el Archivo General indicará a las unidades remitentes si procede o no la transferencia de los documentos a depositar.

1.- Eskuratutako agirien zerrenda (II. eranskina): dokumentuak artxibora transferitzen diren guztietan aurkeztu behar da, artxibo batetik bestera transferitzen diren espedienteak kontrolatzeko.

Dokumentu-segida bakoitzarekin batera emate-zerrenda bat aurkeztuko da, nahiz eta dokumentu-transferentzia aldi berean egin.

Ez da inolaz ere onartuko dokumentaziorik eskuratutako agirien zerrendarekin batera aurkezten ez bada.

2.- Edukiaren zerrenda (III. eranskina): bertan, transferitutako artxibo-kutxak barne hartzen dituen espedienteak zehaztuko dira. Dokumentu-segida berari dagozkion espedienteetako bakoitzari buruz honako datu hauek emango dira: artxibo-kutxaren zenbakia eta bertan duen ordena, espedientearen identifikatzailea, eta espedientearen objektua eta/edo subjektua denaren deskribapen laburra.

40. artikulua.— Oinarrizko inprimakiak.

Bi zerrendak euskarri elektronikoan beteko dira eta bitarteko telematikoen bidez bidali ahal izango dira.

41. artikulua.— Gordailua formalizatzea.

Sinadura elektronikoaren erabilera orokor bihurtu artean, emate-zerrendak inprimatu egingo dira gordailutzea formalizatzeko eta bulego igorleko arduradunak, gordailugile modura, eta artxibo hartzaileko arduradunak, gordailuzain modura, sinatuta eta zigilatuta egongo dira.

Hirugarren atala: Egindako transferentzien harrera eta kontrola

42. artikulua.— Transferentzia egiteko baimena.

1.- Dokumentazioa bidali aurretik, artxibo hartzaileari eskuratutako agirien behin-behineko zerrenda eta inbentarioak igorriko zaizkio, euskarri elektronikoan; horrela, honek, behin horiek gainbegiratu ondoren, kutxak gordailuetara eramateko baimena eman ahal izango du.

2.- Artxibo Nagusiak ez du dokumentaziorik hartuko honako kasu hauetan:

- a) Deskribapenak osatu gabe edo oso argi ez daudenean.
- b) Dokumentazioa ematea bulego igorleari dagozkion eskumenekin bat ez datorrenean edo espediente baten kopiak direnean, osorik edo partzialki.
- c) Laguntzako dokumentazioa edo dokumentazio pertsonala denean.

43. artikulua.— Transferentziaren egokitasuna.

Dokumentazioari dagozkion sailkapen-koadroak eta kontserbatzeko egutegiak onartzen ez diren bitartean, Artxibo Nagusiak gordailutu beharreko dokumentuak transferitzea egokia den edo ez adieraziko die unitate igorleei.

Artículo 44.— Supuestos especiales.

El cese, supresión o extinción de unidades organizativas y organismos pertenecientes a la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi conllevará obligatoriamente la transferencia de la documentación generada por los mismos al Archivo General.

Artículo 45.— Recepción de las transferencias.

El Archivo General, como receptor de la documentación transferida, realizará las siguientes tareas:

1.- Cotejo entre lo indicado en la Relación provisional de entrega de documentos y la documentación recibida. Si se detectan incidencias, se notificarán a la unidad remitente de la documentación para su corrección.

2.- Ubicación de la documentación en los depósitos y asignación de la signature topográfica que le corresponda.

3.- Devolución a la unidad remitente de la Relación provisional de entrega de documentos con la signature topográfica para que se confeccione la relación de entrega de documentos definitiva.

4.- Recepción de los tres ejemplares de la Relación de entrega de documentos con la signature topográfica anotada, firmados y sellados por la persona responsable de la unidad remitente.

5.- Anotación de la transferencia recibida en el Registro General de Transferencias. A esta anotación se añadirá la firma, en la Relación de entrega, del responsable del Archivo General y el sello del mismo, como instrumentos de control de la transferencia realizada, y de asunción de la responsabilidad que la custodia de esa documentación conlleva.

6.- Envío a las unidades administrativas remitentes de un ejemplar de la Relación de entrega de documentos, que deberán conservar como testimonio y control de las transferencias realizadas.

CAPÍTULO IV ORGANIZACIÓN DE LA DOCUMENTACIÓN

Sección primera: Clasificación de la documentación

Artículo 46.— Cuadro de clasificación.

1.- Desde el momento de su creación o recepción, todos los documentos de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi se organizarán en base al denominado Cuadro de Clasificación de la Documentación, que estructure la totalidad de la documentación existente, incluida la documentación en soporte electrónico.

2.- Todos los fondos documentales existentes deberán contar con su correspondiente Cuadro de Clasificación documental.

3.- Este Cuadro de Clasificación deberá ser conocido y utilizado por todas las unidades administrativas y archivos del Sistema como una herramienta para la gestión de su documentación.

44. artikulua.— Egoera bereziak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Administrazio Institutuzionaleko antolamendu-unitateak edo organismoak bazter utzi, ezabatu edo desagerrarazten badira, horiek sortutako dokumentazioa nahitaez Artxibo Nagusira transferituko da.

45. artikulua.— Transferentzien harrera.

Artxibo Nagusiak, transferitutako dokumentazioaren hartzaile gisa, honako zeregin hauek burutuko ditu:

1.- Dokumentuen behin-behineko emate-zerrendan adierazitakoa eta jasotako dokumentazioa alderatuko ditu. Gorabeherak antzematen baditu, dokumentazioa igorri duen unitateari jakinaraziko dizkio, zuzen ditzan.

2.- Dokumentazioa gordailuetan jarriko du eta dagokion katalogo-zenbaki topografikoa emango dio.

3.- Unitate igorleari eskuratutako agirien behin-behineko zerrenda itzuliko dio, bakoitzari jarritako katalogo-zenbaki topografikoa alboan adierazi ondoren, eskuratutako agirien behin betiko zerrenda egin dezan.

4.- Eskuratutako agirien zerrendaren hiru aleak hartuko ditu, dagokien katalogo-zenbaki topografikoarekin; hiru aleak unitate igorleko arduradunak sinatu eta zigilatuta egongo dira.

5.- Transferentzien erregistro orokorrera egindako transferentzia adieraziko du. Adierazpen horrez gain, emate-zerrendan, Artxibo Nagusiko arduradunaren sinadura eta zigilua ere jasoko dira, egindako transferentzia kontrolpean dagoela eta dokumentazio hori babesteko erantzukizuna bereganatzen duela ziurtatzeko.

6.- Eskuratutako agirien zerrendaren ale bat administrazio-unitate igorleei bidaliko die eta hauek egindako transferentziak frogatu eta kontrolatzeko gordeko dute.

IV. KAPITULUA DOKUMENTAZIOAREN ANTOLAKETA

Lehenengo atala: Dokumentazioaren sailkapena

46. artikulua.— Sailkapen-koadroa.

1.- Sortu edo hartzen diren unetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Administrazio Institutuzionaleko dokumentu guztiak dokumentazioaren sailkapen-koadroa oinarri hartuta antolatuko dira; horretaz baliatuta, dagoen dokumentazio guztia egituratuko da, euskarri elektronikoan emandako dokumentazioa barne.

2.- Dokumentu-funts guztiek dokumentuen sailkapen-koadro bana izango dute.

3.- Sailkapen-koadro hori administrazio-unitate eta Sistemako artxibo guztiek ezagutu eta erabiliko dute, euren dokumentazioa kudeatzeko tresna gisa.

4.- General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi recaerá sobre el Archivo General, en colaboración con el personal responsable de organización y archivo de cada Departamento, Organismo Autónomo, Ente Público de Derecho Privado o Sociedad Pública.

Artículo 47.— Principios de actuación.

1.- Esta estructuración responderá a criterios de carácter orgánico-funcional, reflejando de manera coherente la organización de la Entidad y las competencias, funciones y actividades que desarrolla.

2.- Asimismo, responderá al principio de respeto a la procedencia de los fondos, por el cual, la documentación procedente de una misma entidad u organismo debe mantenerse agrupada, sin mezclarla con la producida por otro diferente.

Artículo 48.— Estructura del Cuadro de Clasificación.

El Cuadro de Clasificación se estructurará por niveles o categorías, comenzando por el nivel más amplio, para ir descendiendo hasta finalizar en la descripción de la serie documental y, en determinados casos, llegando incluso al tipo documental:

- El nivel más amplio, el de "fondo", es el referido a las distintas áreas competenciales cuyo ejercicio corresponde a los Departamentos.
- El siguiente nivel, "sección", afecta a la estructura orgánica del área competencial que, generalmente, se identifica con las Direcciones.
- El tercer nivel lo constituye la "serie documental", reflejo de la actividad administrativa a que da lugar al desarrollo por parte de la unidad orgánica de una determinada función, que se concreta en los expedientes.
- El último nivel, "tipo documental", se corresponde con cada uno de los trámites administrativos del expediente.

Artículo 49.— Revisión del Cuadro de Clasificación Documental.

1.- La revisión y actualización del Cuadro de Clasificación documental tiene como finalidad garantizar que las series documentales identificadas y estructuradas reflejen plenamente las funciones y actividades que desarrolla la Administración.

2.- La revisión y actualización del Cuadro de Clasificación documental se realizará:

- a) A propuesta de las unidades administrativas y/o los archivos de oficina para sus series documentales.
- b) A propuesta de los Archivos Centrales de la Administración Institucional para la documentación generada por su organismo.
- c) Por iniciativa del Archivo General.

3.- La solicitud de actualización deberá ser razonada e implicará la elaboración de un nuevo estudio de identificación y valoración de la serie documental objeto de revisión.

4.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Administrazio Instituzionaleko dokumentazioaren sailkapen-koadroa egin eta eguneratzeko ardura Artxibo Nagusiari dagokio, sail, organismo autonomo, zuzenbide pribatuko ente publiko edo sozietate publiko bakoitzean antolamenduaz eta artxiboaz arduratzen den pertsonalarekin lankidetzan.

47. artikulua.— Jarduketa-printzipioak.

1.- Egituraketa hori bat etorriko da irizpide organiko eta funtzionalekin eta modu koherentean islatuko ditu erakundearen antolamendua, dagozkion eskumenak eta eginkizunak, eta garatzen dituen jarduerak.

2.- Era berean, bat etorriko da funtsen jatorria errespetatzeko printzipioarekin; horren arabera, erakunde edo organismo beretik datorren dokumentazioa multzo berean eduki behar da eta ez da nahastu behar beste erakunde edo organismo batek ekoiztutakoarekin.

48. artikulua.— Sailkapen-koadroaren egitura.

Sailkapen-koadroa maila edo kategorien arabera egituratuko da, maila orokorrenetik hasi eta dokumentu-segidaren eta, kasu batzuetan, dokumentu tipoaren deskribapenarekin amaitzeko:

- Maila orokorrenak, "behekoak", hainbat eskumen-eremu barneratzen ditu; eskumen horiek sailei dagozkie.
- Hurrengo mailak, "atalarenak", eskumen-eremuko egitura organikoan du eragina; eskuarki, zuzendaritzekin identifikatzen da.
- Hirugarren maila "dokumentu-segidari" dagokio eta organo-unitate batek zeregin zehatza garatzean burutzen duen administrazio-jarduera islatzen du; jarduera hori espedienteetan zehazten da.
- Azken maila, "dokumentu-tipoa", bat dator espedientea izapidetzeko faseetako bakoitzarekin.

49. artikulua.— Dokumentuen sailkapen-koadroaren berrikuspena.

1.- Dokumentuen sailkapen-koadroa berrikusi eta eguneratzeko lanen helburua da identifikatu eta egituratutako dokumentu-segidek administrazioari dagozkion zeregin eta jarduerak guztiak islatzen dituztela bermatzea.

2.- Dokumentuen sailkapen-koadroa honako kasu hauetan berrikusi eta eguneratuko da:

- a) Administrazio-unitateek eta/edo bulegoko artxiboek halaxe proposatzen dutenean, euren dokumentu-segidetarako.
- b) Administrazio Instituzionaleko artxibo zentralek proposatuta, bere organismoan sortutako dokumentazioari dagokionez.
- c) Artxibo Nagusiaren ekimenez.

3.- Eguneratzeko eskaera arrazoitua egongo da eta berrikusi beharreko dokumentu-segida identifikatu eta baloratzeko beste azterlan bat egitea eragingo du.

4.- El Archivo General analizará y comprobará la necesidad de creación de la nueva Serie e informará de la pertinencia o no de su actualización.

Sección segunda: Ordenación de los documentos

Artículo 50.— Criterios de ordenación.

1.- Los documentos dentro de cada expediente deberán estar ordenados siguiendo su lógica tramitación que, en general coincide con su secuencia cronológica.

2.- Los expedientes dentro de cada serie se ordenarán según el criterio más conveniente a su contenido y codificación: alfabético, cronológico, numérico y alfanumérico.

Sección tercera: Reorganización de fondos documentales

Artículo 51.— Trámites de reorganización.

1.- Una vez definidos los calendarios de conservación, el Archivo General procederá a la eliminación y/o reorganización de la documentación evaluada.

2.- El Archivo General levantará Acta de Reorganización de Fondos cada vez que realice esta operación (anexo IV).

Artículo 52.— Cómputo estadístico.

A efectos de controlar el crecimiento anual del Archivo General, las unidades de instalación eliminadas se computarán negativamente.

Sección cuarta: Descripción de los fondos documentales

Artículo 53.— Identificación.

Todos los documentos custodiados en el Sistema de Archivo de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi deberán estar identificados y descritos de tal modo que se facilite la consulta y localización de la documentación e información objeto de interés.

Artículo 54.— Plan de descripción.

Es responsabilidad de la Dirección del Sistema de Archivo el diseño y elaboración Plan de Descripción de los fondos documentales existentes en el que se contemple:

- a) La determinación de la información a cumplimentar en cada uno de los niveles de archivo del Sistema para la correcta identificación y localización de la documentación.
- b) La normalización del lenguaje de descripción.
- c) Los criterios de utilización de descriptores onomásticos, geográficos, y de materia.

